












# Zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 3 PEZETA

## EUSKALDUNEN ALFABETIZAZIOA



Maiz-esan dugun bezala, herri bakoitzak bere izakera du. Baina izakerarekin batean esakera (izkuntza) badu, nor-tasun terdi du. Hori baita sustraikako izakeraz onartua izatea. Hori da horaindik euskaldun diranen berru giroa.

«Euskaldunak jelt» izenburuzko artikulu pizgarrian, Mikel Ugaldet (Z. ARGIA, 225 zerbakian), Euskaltzaindiaren egizko alfabetizazio kanpaina izan zedin eskatzen zuan. Erantzun gisa, mugitu dela esateko, bijoa gaurko nere artikulu hau.

Bere lagungarri, mintzairari buruzko saiotoxo bati ekinen diogu.

Izan ere, gizonaren izakerak, kondaira zear, bere gorakako eboluzioa eraman ahal izan du, izkuntzari esker. Zeren, gizonak bere bizitz iraupena ez dio zor berak fisiku aldetik dituan dohain hobei, baizik bere adimentasuna eta bere eratzalle ahalmenari esker. Ta, gizonaren bi dohain hauek izkuntzari loturik ditzaiz.

Izkuntzak damaigu, bere mufiotan finkaturik, gure pentsamenaren estruktura.

Izkuntza ez da elkar adierazle bat bakarrik, baizik pentsatzeko tresna ere bai. Izkuntza ezin ditek pentsametik aldentu; pentsamena barnetikako izkuntza da. Horregaitik, zer ikusi handia dute izkuntzak eta pentsaerak. Ta pentsaerak berakin ditu sentiera eta irizkizuna, izakerari bere tajura berezia ematen diona.

Izkuntza batek, zibilizazio ta kulturaren batasuna darama, herri baten jatorrizko iturburu batetik jasoa, horregaitik dute herrietako gizonak buruzko izakera ta pokaera berezia, alkargo bakoitbari bere gozoko nortasuna ematen diona, politikazko lokarri guzian gaitetik dagoena, ifoz politika bidez, indarrean, etniakko estruktura hoiek austen badira ere. Behar bada hor izanen ditu bere sustraialk izkuntza gorde beharrez herriak bere politika bat jokatea, bere jatorrizko izateko gorde nahirik, zenbait lekutan gertatzen dan bezala. Izan ere, legezkoa da gizon bakoitzak eta herri bakoitzak bere izatearen eskubideekin jabetu nahit izatea. ONU ak berak salatzen du «Declaración Universal de los Derechos del Hombre» izeneko dokumentuan, bigarren artikuluan esaten duenez: «Cualquier persona puede prevalerse de todos los derechos y de todas las libertades que esta Declaración proclama, sin ninguna distinción de raza, de color, de sexo, de lengua...»

Izkuntza da herri baten etnia goien bereizten duena. Aresti k oraintxu esan zuanarekin nago (Z. ARGIA, 224 zerbakian): Euskalduna izateko euskeraz egin behar da. Euskerarik gabe ez dago euskaldunik». Hor dago izan edo ez izanaren kaka.

Bai; euskaldunak ez diranak, erdelidunak dira, baldin gu-

re izkuntzaren aburuz bereiztu behar begenu; gure izkuntzaren aburuz eta arbasoen litziz, erak gure mintzairaren mamian era horretara txertatu zutelako gure nortasunaren zerga.

Horain, ustez aldatzeko, euskeraren funtsetik liren beharra dago, erderaren aburuz edo juzgatu beharra, bere gutetik liren beharra; baina zontzundunak ondotoxaki liron gunean ez dagoala norperaren.

Guk, gu izateari uzten diogunean, beste norbait izango gara, bai; baina ez gu. Euskaldunak ez. Berezik izango ditugu gure izakeratikako dohaintxo ttipiak, dohain hondakiliak, lehen izanaren oroiarri bezala; baina ez herri batek bere magaitetik sortarazi zuten nortasunaren indarrezkoak, baldin pentsaeraren estrukturalak, bere litzizid bereziki, gordetzen dituan izkuntza galten badu.

Izatez, norperaren izkuntza, gurasoen gaitetik dago, onduen koprenitzen dena, burua gutxien nekaturaz mintzaten dena (sarrri gure artean horrela ez bada ere, izan ditugu sarraskiegaitik), herri alkatu batentzat argiena, bere sustraikako izakera mendez-mende distoralako, herri alkargo baten ar-emanekoa delako, ta horrek giotzen du norperaren izakera.

Gaur, izkuntza bateko semeak, iraupenerako, beharrezkoa dute kultura, beharrezkoa beren izkuntzan irakurten eta idazten jakitea. Ta, gurean goienak dira ez dakitenak.

Aspaldi esan zuen ibifagabekia adiskideak, euskaldunok gñala munduan analfabeturik gela genuen herria, gure izkuntzan ez irakurten eta ez idazten ez genezkelako. Mingarria bada ere, ez da eriazoi makala. Baina, zorfonez, gazte andana bat asia da Euskaltzaindiaren babesean utsi-ne hori bete nahirik. Udara honetan asiko dira lehen ikastaroak euskaldun izanik euskeraz ez irakurten eta ez idazten ez dakitenentzat.

Gogoan izan gaur dugun kalterik aundionetarikoa bat kulturaz urri ibiltzearena dela, ta batez ere, euskeraren zori txarra euskaldunok analfabetoak izatetik datorrela.

Abegi onez lagunduko ahal diegu gazte kementsu hori. Izkuntzari zaharrenaren jabe garalako ditugun arroke-riak baztertuaz. Amor emanz. Zeren kultura bide horretatik abiatzen ez bagera, geldusk bere.

Auiduk gaudu, bai; auidiak eta atzeratuak. aBina, lholz ez da berandu. Milloi erdi urteren utsunea dago izkuntzen sorkunde izan zitekeanetik idatzitako lehenengo dokumentuak arte. Ta, Europako oraingo izkuntza bizien literatura-ron aberastasunik zaharrena ere, ez diona seireun urte-rik harat. Lanak bizkortu lezako gure mintzaira aua, batez ere gazte bihozeta garra denean. Betez ordu onean irakaso gazte kementsuok.

JUAN SAN MARTIN

# Zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 4 PEZETA

## IRUN-GO EUSKAL-LITERATURAKO SARIKETA

Irungo errikoetxeko agintariak antolatatu duten Euskal-Literaturako Sariketan, Jose M.<sup>o</sup> Etxaburu «Kaminazpi» idazleak irabazi dau lenengo saria, 3.000 pezetakoa, bere «Bri Jaiak eta San Martzialko Alardea» lanagaitik.

Ogei ta lau urteko mutil batek irabazi dau aipamen berezia (500 pezetakoa), «Buño emen...» lanagaitik. Idazle berri onen izena Uriz Erxegaray Joxe da, eta Beobin bizi da.

Loidi, Bordari eta Bitaño'k egin dute mailko.

ANA MARIA EGIZABAL, ABESLARI TXAPELDUN BILBO'N


Bizkaik'ko Eresi Konserbatorioko Sari Nagusian, Ana Maria Egizabal' ek iritxi du Lenengo Saria. Arenas' etako neskatxa onek landik ere bere balioa erakutsia du beste Letaketan. Oraingo ontan beste bi ziran lelaketa ontan jokatuak, eta oso lan ederra egin zuten biak ere.

Aurrez, Torreavega'n Espainia guziko kantarien artean ere, Zar-

zuelatarako kantari leiketan Teleskufiterako lan-lekua irabazi zuan. Madrillen «La Traviata» eta «La Favorita» zarzuelak abestu zituan gero.

Madril'dik etorri zan Bilbo'ko sari au jokatzeko ta berriro Madrillera ta andik Valenzia'ra dijoa, beste uri ontan zarzuela bi oiek abestera.

Ikusten danez, ba-du alde guzietan bere kanru-ekolaren yayotasun izena. Bijoia orrelae bere lana goieneko tokian jartzen.



## Euskaldunen Alfabetizazioa

### KULTURAZKO LITERATURAREN BIDE URRATZEAK

Euskaldun den gizon orok altxa boza buruya Etxhuyen lengoajia izanenda fioria Prinze eta laun handiek orok haren galdia Eskribatuz halbalute ikasteko deitza. (Etxepare, 1545).

ZERUKO ARGIA'n 227'garren zenbakian ari genun saioari jarraituko dugu.

Euskaldunik gienak beren hizkuntza ez dutela nahi esan digute. Beren gogoz uzten dutela guraso hizkuntza? Geienak ez-jakinean noski. Kontzientzi kultura bidez hartzen da. Estadaiek ofizialki lagundu dituzten hizkuntzetan lotu dute batasuna ta indartu dute kultura. Ornit du kontzientzia. Norik utzi du euskera euskal kulturaren kontzientzia batekin jabetu ondoren? Guro kulturaren irakaskuntzak bideratuko bagenitu ikusteko litzake ia zenbatak uzten duan guraso hizkuntza.

Kontuan izan beste hizkuntza batean, beharturik, irakatsi zigtutela eskola, maiz tautik uleru ezarren.

Hizkuntza baten alde era askotara egin ditzake eta egiten da: batzuentzat aski da berena izatearen errazoi soilia, beste batzuek munduan gien zabaldus delako, bestok goxoa delako, edo latza delako; gustu guzietarikoak daude. Bakoitzak bere nahieren neurria hartu lezake. Gurari guzietara eratzten da hizkuntza baten ganeko maiztasuna edo begirapena. Ta ez da errazoi gutxi bizi dan bati iraurerazo nahia.

Hizkuntzen literaturarekin ere berdiria jasotzen da: nagusiña, landuena, giartsuena, zerutisrena, sakonena, teknikoena, zientifikoena ta abar. Ta txiroena denean ere, maiz, aski da norperana izatea. Norperaren jatorriaren gunetikako. Norperanean arkitzen dugulako besterentetan ez dan gogo-miharen norririko zorbait. Ta, baldin bada norbait norperanean bihotzarentzat guza hunkigarrik arkitzen ez duena, jakinduririk ezarena da, edo besteala bihotz gogorkoriz. Lehengoago izan ditako guok gure ikastaroak eratzeko eskubiderik ezaren ondorioakoa (norper herra ezagutzeke, nekezagoa baita norper burua ezagutzen); baita bigarrena askoz okerragoa da, bihotz gogorkerik ajolarik eza, zikoitzkeria, zeren inoiz inungo herriak ez baitu bururik jaso gizon zikoitzan gandik. Zikoitzan holetakoak ditugu beren buruak kulturadun jo ta norper herriaren kultura ezagutzen ez dutelako, arro, euskera ta euskal literatura mespreziotzen dutenak. Bada anhitz hola gure alorrean. Adibidez, beren istudiotan ikasiko zuten eta buruz ere gogoraziko dituzte La Fontaine edo Semanegoren alegiak, baita ez dute jakingo Bizenta Mogel eta Pascual Iturriaga nortzuk ziren, lan berdiria euskeraz egin dutelarik.

Frutas emateko sustraiak behar dira, sustaiak, norperari dagokion lurran ongi errotuak.

Ez Ez dugula literaturarik? Ez gu ibili geran eskoletan erakutsi digutenagaitik. Baina ordua da jakiteko, euskaldunok orain arte literaturari egin diogun jaramonarentzat literatura aberastegia ta ugarietgia dugula.

Aski aspaldikoa dugu Etxeparek 1545'an argitaratu zuen liburua, baita ere Joannes Leizarragak 1571'an argitaratu zituan hirurak. Axular'ek 1643'an argitaratu zuen Gero hobereña bada ere, beste biak ez dira euskeraz idatzi diranak txarrenek; ez da gutxiagorik ere. Ez giñako gaiak gaur argitaratzen diran txarrenek haink bezin onk balira.

Axularren ondoren, guro kulturazko literaturak, gorakada zorianoa bat ezagutu duen. Ongi konprentzeko orain gainera, zeren Erkiaga adiskideak zion bozala: «Konpreni ezña ditekian izkera ez du inortok ere ezertaroko nahi izanen». Ta haietan ez du bide nekogarririk arkituko alfabetizaziari ekitzen diot euskaldunak.

Euskaldunen alfabetizazio honok ere izan ditu bere langilleak. 1761'an Kardabera'ek argitaratu zuen Euskeraren berri onk eta ondo eskribitzeko, ondo irakurteko, ta ondo lizagiteko Erreglak izeneko liburuxta bat, 1964'an Tolosako «Auspoa Liburutegiak» berriz argitaratu duena ta oraindik ere probetuzkoa dena.

Bestaldetik, Julien Vinson'ek ekin zion egiazko lan bati guro kulturazko literaturaren ezagupiderako, azkenean Essal d'une bibliografie de la langue basque izeneko lan batean 1891'an argitaratu zan bilduma. Manterola ta Michel bezalako biltzaileeri ere ez digu gutxi zor.

Gorago, Nikolas Ormaetxea («Orike») irten zan lehen literatura kondairarekin, ta euskeraz gainera: Euskal literaturaren aize edo edesti laburra, 1927'an «Euskal Etnologia» argia ikusi zuana. 1931'an Campion'ek eman zuan beste literatura kondairaren saio bat bere Euskaria (Décima serie, Origenes del pueblo Euskaldun, Tercera parte, Capitulo II). Mitxelena'k bere Historia de la Literatura Vasca, 1960'an. Eta 1961'an, izen berdiriarekin, Villasanten kondaira nagusia argitaratu zan. Azken bi hauek derri-gorrezkoak dituzte guro literaturaren kondaira ezagutu nahi dutenok, ta baita alfabetizazio kanpanak asiko direnak ere beretan arkituko dituzten lurreragaitik.

Baita halaz ere, alfabetizazio kanpanian arkituko dituzten libururik onenak antologizko bildumak izango dira. Ez da posible guzien berri ematea eta aski izango da premiazkoenak eta batez ere oraindik salgai arkitzen diranen berri ematea.

(2'garren artikuluan jarraitzen du)

Le Groupe de Danseurs Basques **ANDRA MARI** se produira a :

- COMMERCY.....14 Juillet 1967 Vendredi
- SCHOTEN.....15 au 21 Samedi et Dimanche
- YVOIR.....22 au 23 Samedi et Dimanche
- PLOMBIES.....24 Jeudi
- LE THILLOT.....26 Mercredi
- ST REMY.....27 Jeudi
- SENONES.....29 au 30 Samedi et Dimanche

**PROGRAMME**

- 1 DANSES DE GUYENNE (Avec huit danseurs)
  - a) Aquera
  - b) Azken-dantza
  - c) Donibane'ko zortziko
  - d) Urtal-dantza
- 2 LEBARNO'KO MATELOTA-DANTZA (Avec huit danseurs)
- 3 TISTU, SOLISTE, "MARTITU"
- 4 DANSE DE LESBITO (Bosque) "KALVARRAMA" (Avec huit danseurs)
- 5 DANSES DE SOULE (ZUBEROA) (Avec cinq danseurs)
  - a) Basotzibak
  - b) Godelet-dantza
  - c) Gabote
  - d) Azken-dantza
- 6 MARIL YURI ET ZAR-DANTZA (Avec huit danseurs)
- 7 CONTRAINS ET DANSES DES PAYSANS (Avec huit danseurs)

**II**

- 1 DANSES DE BISCAYE (Avec huit danseurs)
  - a) Zortziko
  - b) Biskako
  - c) Mañil-dantza
  - d) TxenKamarko
- 2 DANSES DES ARCEAUX (Avec huit danseurs)

**39 JOURNÉE ARTISTIQUE 13-31 JUILLET**  
**ANDRA MARI**  
 GALDAPANO (Biscaye)

## ANDRA MARI, Dantzari Taldearen Irugarren Ibilte Europarra

Orain 10 urte sortua dan Andra Mari Dantzari Taldeak ille ontako 13'an litan dan Prantzirumtz eta bide batez, Luxemburgo, Alemania, Belgika eta Suitzara ere elduko da. 23 dantzari eta 3 txistulari 7 urtan emango dute satoak. Urtak, onexek dira: Commercy, Plombières, Le Thillot, St. Remy eta Senones, Prantzian; Schoten eta Yvoir, Belgikan. Ibilaldia, batez beste, 5.000 kilometro luze da eta kilometro denak autobusean egingo dira. Europar elkar ezagutzea da ibilte onen oiburua, elkar ezagutu eta onela lagun egin, musika, abesti eta dantza errikolaren bidez.



# Zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 4 PEZETA

## EUSKALTZAINDIAREN UZTAILLEKO BILLERA

### Eskoletako liburuak, Ministroari eskea'ta Alfabetizazio gai berezienak

Betiko otolitzak eman dio asiera il ontako billerari. San Martin, Euskaltzaindi'ko idazkariak, irakurri du, urrengo, aurreko illeko billeraren agiria, denak ontzat emanaz.

#### ESKOLETAKO LIBURUAK

Euskal ikastoletako liburuak eskatzen genituan Garagarilleko billeran, eta asi gera erantzunak artzen. Tudola'tik dator eskutitz bat, ango jesulagun batek Bigarren Irakaskintzarako egina'k dituan liburu batzuek situatuz. Xalbador Garmendia, apazak ere ba-du ikastoletako beste bat eta Lekuona apazak, Seminarioan diran beste liburu batzuen berri ere ematen digu.

Euskaltzaindiak ba-du ortarako Batzorde bat aukeratua ta texto olek eskuan nai lituzko, aztertze. Kopiak eskatzea erabakitzen da.

#### MINISTROARI ESKEA

Udaran, Donosti'ra etortzeko da Ministroa, ta Euskaltzaindi'k aukera ori, bere eskea berritzeko artu nai du. Pedro Irizar jaunaren bitartez egina da berarekin itzez-itzez ari-tzeko baimena. Ta al dala onela egingo da, euskera irakaskintzan sar dezaten lenbailen.

«Amigos del Pais»-koen buru dan Alvaro Valle Lersundi'k eskutitz bat egin dio Euskaltzaindiari, au esanaz: ongi ba-deritzio Euskaltzaindiari, bera ere gurekin batuko dala Ministroari esko ori egiteko. Asmo au onartua izan da, ta Batzordekoak Valle jaunarekin egon dituzela, erabakitzen da.

#### ALFABETIZAZIO DALA-TA

Londik esana zan, nola gazte talde bat euskeldunei euskeraz irakurtzen eta idazten erakusteko asmo-tan dan. Auek San Telmo'n eskatzen zuten lekua lan orri laguntzeko.

Leku ori «Amigos del Pais»-koena da ta onok gogoz eman du toki ori bear dana egiteko.

Etخابuru jaunak ere eskutitz bat egin digu, «ANDANA» itza aztertuz.

#### BILBO'KO EUSKAL IKASTOLA ZABALTZEN

Irigolen Alfontso jaunak, herri on bat ematen digu: Bilbo'n ba-da AZ-KUE zanaren izeneko euskal-ikasto-

la bat, ofizialki ezagutua. Ikastetxe onek bere lana geltu egin du ta toki berriak eskatzen zituan. Ortarako, ikastetxearen alboan dagoen beste etxe batean alogeran leku herri ori artu du; ta orain ikastetxeak lengo lekuak beste ainbeste zabaldu ditu. Beraz len alako bi da orain ikastetxea.

#### EUSKAL ANDERENOAK LAGUNTZAILLE

Ikastoletako lana erosoago egiteko, irakaskintzan ari diran nexka mailtrak Euskaltzaindi'ra ekarri nai dira. Ikastoletako Euskaltzaindiak izendatuta duan Batzordeak, euskal-ikastoletan erakusten ari diranen itza entzun nai luke, bear dan guziaz tajuz antolatzeko. Aitatu dira nexka batzuen izenak, eta bata ta beste-ari idaztetokan gelditu dira.

Irakasleei laguntzen ari diran zenbait jaunen izenak ere aitatu dituzte ta auel ere gure asmoen kontu emango zale.

#### TXOSTENAK

Satrustegi apaiz naparrak, bere lan bat irakurtzen du. Ortan ari dan taldeak izlari batzuek nai lituzke, euskal-literaturaz zerbait adierazo dezaketenen az, ikasteko. Ortarako izlariak aukeratu dituzte.

Alfabetizazioaz, San Martin jaunak itzegiten du. Ortan ari dan taldeak izlari batzuek nai lituzke, euskal-literaturaz zerbait adierazo dezaketenen az, ikasteko. Ortarako izlariak aukeratu dituzte.

Lartzabal apaizak, Bidasoz aruntzako Euskalerrian gai ontan zer egin dan adierazi digu. Lizundia jaunak ere beste ainbeste egin du, Bizkai aldean zer egin dan agertuz.

#### TORIBIO ALTZAGA SARIA

Berriro sari au ematekoak dira aurten. Saria erabakitzeke balia, malkoak, juezak, erabaki bearra zegoen. Auek, Lartzabal, Beobide ta Aresti izan zitezkeela esan zan.

Beobide jaunak Euskal-Teatroaz iru egunetan Zaldibar'ko errian egin diran batzaldiak aitatu ditu. Ango lanak nola izan diran, eta batzore Ricardo Salvat katalandar gazteak nolako laguntza ta erakutsiak eman dituan agertuz. Asmo aundiak dira ontaz, eta aurrena norbaitezuek gai au ikastera bialdu bearko dirala dio, euskal-teatroak aurrera egin dezan.

Erkiaga Eusebio'k diru-kontuak bialdu dizkigu. Onela Euskaltzaindi'k Donostia'n eta Bilbo'n dituan txanponen berri jakin degu.

Jakin degu ere Napsar'oa nola salatzan diran euskera alde. Onela jakin degu Zangotza'ko Lore Jokotzan, euskal olerkiak ere sartu dirala. Iru sari izango dira, beste leku batean esaten degunez.

Orrez gain, Iru'ne'n «SEMANA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS» barruan euskerari ere lekua eman dituzte. ASTE au Abuztuaren 28'tik Aotzuaren 3 arte izango da. Abuztuaren 31'garrenean, eguadiako amabiterdian ENSKAL MEZA emango dute.

Betiko otolitzek bakutu da onela il ontako Billers.

AMILLAITZ



## Euskaldunen alfabetizazioa

### Herri literaturaren emaitza

...there are few things in which a nation reveals its character so fully as in its folk-literature.

Rodney A. Gallop

A Book of the Basques

(...gauza gutxi dira aberri batek bere aztura hain naro agertzen duena bere herri literaturan bezala).

Gure herri literatura beste edozein herrirena bezin aberatsa ta ugaria dela esan zuen Mitxelena'k bere *Historia de la Literatura Vasca'n* (1960).

Gaurkoz, kulturazko literatura ere ez dugu hain urri (hobeto esan, kultista, landua). Munduko azken bolarak modaz edo bizitzak beharturik sortzen doan era berriko literaturatik emaitza askorik ez bada ere ez uste izan eginezagaitik danik, baizik diranak nun argitaratu biderik ez dutelako, gure argitaldarien zuzendariak lehenera gelago begiratuz bigi direlako edo, zeren batez ere olerkian horaingo erderetakoen zorrak gabeko lanak eza-gutzen bai ditugu. Bestalde, argitaratzen neurriak erakusten digu literatura landuaren gradua: ilero bitik hiru liburura argitaratzen dira aspaldiko lau urte honetan. Aldizkariak, berriz, ugariegi ere baditugu, sakabanaturik euskeraren indarrari ta batasunari behar bezala lagundu ahal izateko. Oso tristea da gertatzen hau, ta askorentzat mingarri bada ere, hemen, zabalkunde eta kulturaz hoberean direnak bakarrik aipatuko ditugu: Baionako *Herria*, eta ZERUKO ARGIA asterokoak, eta *Egan*, *Jakin* ta *Otoizlari* kultura aldizkari bezala, ta *Olerki* euskal poesi utsezko aldizkari bezala.

(9 garren orrialdean jarraitzen du)

## ZANGOTZA'KO LORE-JOKOAK



Naparroa zaretetik aize onak dotozkigu aspaldian. Zangotza erderaz: *Sanguesa*, Naparroa'ren mugamugan dago, Arago'i'ri begira. Ala ere, ango Lore-Jokotan, (aurten da bigarren aldiz), erderazko ta euskerazko lanentzako sariak jarri dituzte.

Erderazkoak, amaika sari ta gai erabaki dituzte. Geienak, Naparru'ko Kondaira, legedi ta abar, gure jakintza barruko gaita dute. Euskerazkoak iru dira:

Lendabizikoa Euskal-Jakintzako Akademiak jarri du, iru mila pezetakoa. Au irabazteko, euskeraz, era zarreko itz-neurtuetan olerki bat egin bear da.

Bigarren saria, Errokariko Batzarrek eskeintzen du: au ere iru mila pezetakoa. Au eskuratzeko, Errokariko euskeran olerki bat asmatu bear da.

Irugarren saria, mila pezetakoa, Donapaleu'ko erriak eskeintzen du: Base Nabar eskualeari eskeintzako olerki batentzat. Au, mila pezetako izango dezu. Lanak Abuztuaren azkenegarte bialdu dituzke. Bakoitzak bere lanaren bi kopia edo aldaketa bial bitza, makiñuz ta alde batetik bakarrik idatzia.

Izenik gabe joango da lana. Izen-abizenak, beste estalki itzi bitan jarri. Izen ontara bialdu zure lanak: Don Miguel Samaniego-Calle Mayor 37-2.º Sanguesa. Navarra.

Sariak Agorrek 15'garrenean adieraziko dira. Orra Naparroa zaarreko ana' urrutienak, nolako ikasbidea ematen dituzten.

# Valenti

URRE-LANAK

Plaza de Zaragoza, 2 - Urrut. 11825

antziña-gauzak  
erredizak  
bezuza-galak  
erregalauk



ZALDIBAR

EDERKO BE EDERKO

Erri danak ao batez eritxia emon dau, aurtengo Santija jale...

Ondo irabazirik omena benetan? Iguro diran 47 urte errezka...

Iraunkor izatea da gizonari gaitza...

Zure bikote gaitzen 80 urte euki ardea...

VENEZUELA'IK

Ongi etorri-beroa emon bearren gagoz "Azkorgain" euskal idazle...

Ta "Azkorgain" artu idazkortza eta salatu, Zeruko Argia'k ba dau lana...

GEXORIK

Adiskide on Gizatzola'tar Karmel gexorik dago aldixo batean.

NOR GEIGO?

Zaldibar'ko bikote bik, nor gela-goka bat jokatu dabe: zefiek perretxiko gelgo batu.

Lenengo, bikote bata urten zan uita batsalle, Urkiola gaitzen ez...

Beste bikoteak be, gitxiago izan nai ez ta, bardihelko bideak urratu...

Dala dala, bapez oba pozoidunak baño. Alangoak izan ziran nurbait...

ALDAKAITZ

Euskaldunen alfabetizazioa

Herri literaturaren emaitza

(1. garren orrialdeki)

Bañoa beti izan behar dugu gogoan literatura landua idazle bakoitzaren mende-giroz izan behar duela egiazkoa...

Herri literatura baliatzen inglesak ez ziran XVIII-gn. mendearren azkenetan, ta haien jarraile alemanak XIX-gn. asieran.

Euskeran lana egitea beti da iluna. Ez baita euskera portugesa, gaillego eta katalana bezin mintzaira errea...

Uste dut gure Historia de la Literatura Vasca izeneko liburuetan ez dala behar bezala baliatu gure azoko herri literatura...

Montaz lanik nagusienak eta sakonenak Barandiaran'en Hojas de Eusko-Folklore'tan arkitu genezake...

Baita ere apaguen berezi bat merezi dute hortan horain lanian ari diren A. Jorge de Riezu'k eta A. Antonio Zabala'k.

ran A. Jorge de Riezu'k eta A. Antonio Zabala'k. Lehenbizikoa Aita Donostiren lanak argitaratzen ari da...

A. Zabala egiten ari dan lana ere benetan txalogarria da, bertsolariatza dugularik gure herria literaturaren bereizitasunetik nagusienetako bat...

Alpatutako bilduma hoieri begiratu'ko bat aski da gure herri-literatura oso aberatsa dala jakiteko.

Azoko literatura dugu lekuko herri kulturaren iturburuena, zenbat eta hizkuntza zaharragoa hainbat iturburu jatorragoa ta hainbat errotuagoa...

Artikulu hau irakurtzen duten askori kostako zaie euskerak azoko literatura hain aberatsa duela sineste.

Bukatzeko, gauzatxo bat gogoratu nahi diot irakurle euskalduneri, autren betetzen dirala berreun urte izuetza zaldibiarra...

JUAN SAN MARTIN

LIBURU BERRIAK



BIZKAI'KO AURREZKI KUTXA'K, bai Bilbo'n eta bai Bizkai guzian egundoko lana...

Zure diru arruarratuarentzat CAJA DE AHORROS VIZCAINA etxea dezu onena.

Amaz Etxe morrol Bilbo'n 60 Etxe morrol Bizkai'ko erririk Nagusienetan.

La CAJA DE AHORROS VIZCAINA realiza en Bilbao y la Provincia la más extensa obra benéfico-social y cultural...

Para sus ahorros, la CAJA DE AHORROS VIZCAINA

Oficinas Centrales: Plaza de España, Bilbao Teléfono 24.36.00 (varias líneas) 10 Agencias urbanas...

Ez Merkenak

Bai Onenak!

lanari bidez izaten diru gamadu on, indartsuak, Eta nora po jakin bear du baserriar burutsuak...

FANDERIA

ERREENTERI

LUZAIDE'KO KANTIAK-J. M. Satrustegi. AUSPOA saillean 05'gurren zenbakiz joa dator liburua...

Ibañeta gainetik bera begiratu ta an ezer jakingarririk arkitu ditekene...

Luzaide'k beste zorion bat izan du: an urtetan bizi izan zala J. M. Satrustegi...

Ameriketa aldean diran artzai euskalduneri ere baliatzen zitzaian aldikari ura...

Urte aieran milla kontu zar bildu zigan Satrustegi'guzi opezak eta orain liburu-ska onetan ematen dizkigu...

IRU BERTSOLARI

AUSPOA argi dator beste ala bategin. Oraingo liburu-karen izena: IRU BERTSOLARI da.

Bere itzurretan, zeatz-meatz ematen dizkigu Aita mauala'k bertsolariar goraberak.

Agustin Zakarra, Asteasu'n jaioa dezu. Esnarrizaga basarrian bizi ta pipa-artzaillea bera.

Patxi Bakallo, Errederi'ko semea zan. Aren izena: Juan Frontizko Belauzaran eta Zabala.

Pedro Santa Cruz eta Etxebeste, Andoainen jaioa izan zan, Antzizu basarrian.

Orra mitxkatzeko berri-punta batzuek. Beste guzia jakin nai duanek, eros beza liburua ta an arkituko dituzte...



Oyal eta eforru almagena Paregabeakoak Bikañenak

GARIBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA

# Zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 4 PEZETA



Une zoragarria San Inazio egunkos Lazkao'ko beneditarrantzat ta Euskalerrri osarentzat. Landik ezagutzen dugu monasterio au, baiña orain agertzen zaigu ondo ta sekon zimendu-ta. Abata berriaren sagaritzeak ori asan nai digu. Pake ta egi billa ortarño lristen diran guztief, Jainko bizitzaz suspertzen lagunduko diezutela uste dugu.



## COLON EUSKALDUNA Paco Vargas'en irizpideak

Esan izan degunean Colón plazentziarra zala, txaintzetan artu izan da, baiña ezta orren txaintzetako gauza. Larramendik eta Astarloak ongi sustraituak utzi zituzten zelalako etimolojiak eta istorioak egiteko era. Larramendik naioka umorekin adierazten zituan bere etimoloji atarketak eta ezta erreza igaritzea noiz ori zan serio eta noiz bromo-pasa. Astarloa berriz beti seriotasunez ta sutsu. Bigarrenak, gaur, porraitzaille geiago duala esango nuke, gure euskal giroaren kulturako noski; bear bada leengoa-ren umorezko jarduntza ez ezagutzearren. Dana dala, emen gaude aingandiko karga astun batekin.

Paco Vargas, "El Hidalgo de Soraluze", Larramendi'ren espaleitakoa genduan. Baiña Plazentziako urak kutsatuagoa noski. Larramendik berak ere ez ote zuen plazentziarren baten ikutua? Ez nuke ezetzik esango. Paco Vargas'ek bai.

Asteko, esan deigun ez zala "El Hidalgo de Soraluze", ez Paco Vargas eta ez plazentziarra: Francisco Meléndez omen zuan butaio izena. Alajaina! Gure gizon au salaman-carra zan, nai Plazentziako izaeraz ondo errotua. Bere aita Plazentzia-

## Euskal Pastoralak Maule'n

Ona emen guziak alaituko dituan berri on bat: lil onen 20 eta 27'an Euskal Pastoral eder bat agertuko digute Xiberotarrak, Mauleko Urñan.

Azkenaldi onetan, begiak pixka bat idekitzen asi geran garai onetan, Pastoralaren berezitasunaz asko mintzatzen ari gera; gutxi ikusi al izan dute ordea, ez bai da egunero ikusi al ditekera gauz bat, ezta askotaz gutxiago ere. Lan aundia artu bear izaten dute muntatu al izateko, beste alde jende asko bear da, ta gauz denetako ostopoa, diru asko bear baita.

Aurten «Chiquito de Cambo» prestatzekotan zirala jakin genduanean, gogotik poztu giñan, baiñan gure pozak ez zuan asko iraun, denpora gutxi barru ez zutela egiterik adierazi bai ziguten. Or artu dira burruka bizian, batzuek bear zala egin, Pastoralak ezin il zitekeala, euskal aberastasun au ezin zela galdtu, ta beste aldetik eragozpen guziak; azken ondorena ezin obaegoa izan da ordea ta or ditugu begi belarri Etchahun'ek idatzitako pertsuari beren buruak lotuta.

Etchahun idazlea, bere semearekin izango da gidari ta «metteurs en scene» Uruty ta Laferrine, Gareindeli'go jaunak. Egin edo ez egin zalen-tzan ibildu ba dira ere, orain egitea erabaki duten garaiñan gauz nagusi bat egin nai dute, azken urte guzietan izan dan Pastoral'rik aundiena. «Mustra» eder batekin ekin nai diote, oitura zaarreneko aberastasun guziarekin, ta Pastoralak bitartean Satanak mintzatuko dira, dantzatuz, 18'gn. mendeen bezela.

Iruri'ko Pierre Bordacare'k idatzi duen seiagarren Pastoral unek (leen: Etchahun, Matalas, Berterretche, Sancho Azkarra ta Iruri'ko kudea) inoiz ez bezelako arrakasta izango duen ziurtasun osoan gire, gure antzertieren onarriak or bai ditugu, ta gaur egun gure izakeraren aztarketa bizian gorenz ta kanpotarrak berak elnestu ezinazko parogabetasunak arkitzen dizkionez, lo zorroan ez dugu jarraitu naiko.

Kontuan artu, Pastoralak luzeak izaten dirala. Aurtengo unek 4 bat ordu iraungo ditu ta gurrez «muestra» izango danez, gure oiturrarako goiz asiko dala, eguardiko ordubatean, alegia. Ez dakitena da bi igandetan «mustra» egin al izango duten, 20'an egingo dala, ori da oraingoz erabakia.

Berri au jakin bezin azkar eta emen, alderdi onetan, ikusi nai luken jende asko eta asko izango danez, ba dakigu artu emanetan dirala datorren illaren 3'an gauz bera Donostian egin al izateko; lerro auk idaxten ari naizan unean ordea ez da ezer erabakirik; amets utsean ez al da geldituko beintzat.

## Zeruko Argia'ren jaiak

Len esan genduan bezela, ZERUKO ARGIA ez da azalduko il onen 27'garrenean. Orrela bateko ditu bere opor edo jaiak.

## KONTUZ!

ZERUKO ARGIA'ak bere lanetarako zuan beribilla norbaitek ostu digu. Aren matrikula au zan:

**SS 62.125**

Norbaitek beribil ori nunbaiten begitatzten ba-du, abisatu lenbaiten guri, zuzenbide ontara:

Donostia, Okendo, 22. — Tel. 26666

Milla esker.

ko kajinoi fabrikara zuzendari etorri zanean, mutiko zalarik, agertu omen zan Soraluze sarrera. Bertan eldu zan, alde au maitatu zuan, eskeraz ikasi zuan ta euskera maitatu zuan. Gaur ere artuko gendukez olako usko, emengo bestelako askoren trukez.

Inoiz pekatuik egin bazuan, emengo interesak defenditze alde izan zan, peccata minuta. Ori ezta ezer, aundi guraz, tikiak zopalduz, egiten diran peccata capital-en ondutan. Zerurik bada an izango degu gure gizon au. Gaiñera, len ere, plazentziarrak abillak izan dira zeruan sartzeko, ta bertako eskolia ondo ikasia eroian "Soraluze'ko aitonen semeak".

Euskalerriko istoria, heraldika ta Plazentzia inguruko baster zulo guziak ongi ezagutzera eldu zan Paco Vargas. Matz esaten dan bezela, maitatzeko ezagutu egin bear la leenbizi. Ta euskal-seme askoren artean ez degun esemplua degu Paco Vargas'en. Euskalerriko gauzak eta euskaldun jendea ezagutzera dakurrik ez zan konformatu, euskaldun bat geiago izatera biurtu zan eta zerbait eskeindu arte ez zan gelditu. Bere gogoa ta bere onraitasun-

etik aparte liburu bat eskeindu zigun: Colón vizecaino Imprenta Commercial Salmantina. Salamanca, 1936). Colón Plazentziaren sortua zola agiriak emanaz.

Au irakurtzean, norbaitzuk, parre egingo dute, baiña aintziñatik dira Italia, Portugal, Galizia ta Katalunia bakoitzak berretzat artu naiarik, ta oruindik inork agiri zerkatik eman gabe. Beraz, geuk ere zerkatik ez aiek aindat eskubide? Amerikak, edo orduango Indiak, arkitze aretan Gaztelaniak du, erri bezala, egiazko meritu nagusia. Bakoitzari berea. Baiña, ala ere, inork ez du defenditu gaztelarra izan zitekeala asanaz, ta gutxiago agiriak emanaz, gaiñerako erriak egin izan duten bezala. Mende onen aurren parteko urte batean alperrik egin zuan Madrid "ABC"ek deia, bost mila pestako saria esketituz Colón gaztelarra zala demostratu zuanari. Lastima, oraindik inork ezin izandu eraman "ABC"ek antolatutako "kultura" sariketa orren dirurik. Ta, sariketa iriki ta laisierren, Salamanca-ko au etorren Euskalerriko zalaren agiriakin. Euskalerrian



# ELE RTI TA OLERTI

## Autore zaharrak

### IZTUETA, LEHEN FOLKLORELARIA (1767-1845)

Bere aurretik Garibay, Oihenart, Larramendi eta Mogel'ek zer bait landu zuten erretratu, kanta zahar eta herri oituren aldeak, baiña segurantz osoarekin esan genezake Iztueta zela lehen folklorista. Bera zela lehenbiziakoz lan hoiak folklore asmuu eta jakitez egia bituena. Ta, gure literatura hiruaren horerako, euskeraz egin ere gaitara. Ta bere sortzearen berrengarrian urte honetan bere lanen baihoa aintzat har tu ta berrituz beharra dugu.

Emezortzigarren mendearen azke nalidera sortu zen Ingleterran herri jakintza zaharrenakako gaiak bilitzea: kanta zahar, esatera, ipul, dantza, doinu, oitura, saiaskera, ta abar. Mendearen bukaerarako Europako erresuma guztietan zabaldu zen ekintza hori, Iztueta, dantzaria zenez, lakei zitzaion zaletasun hori, ta emezortzigtaren mende asieran ekin zion folklore biltzeari. Duda gabe Europako moda berriak mugitu zuen horretara, bestela ulerkaizta da kondairako une beretan gertat zian hori.

Mogel eta Fray Bartolome], baiña bere alde imuzatu ziren adiskideak ere izan zituen, batez ere Pascual Hurriaga, elogi bikainen egilea. Urtegi igaro ta ura bere bidetik; ze ren orain ere, euskelozaleon munduan, toki batean daude zurera-za- leen sarkako aburak.

Iztueta ren ekintzak bere ondorengo itxutak ekarri zituen, batez ere herri-literatura biltzaileretan. Chaho ziberutarra eta Borow eta Fr. Mi chel atzerriarrek, Mauloko Sallabe rryk eta Donostiako Maureolak, atzerriaratu zuten lana.

liburu bat ere idatzi zuen, *Gipuzkoako produktibaren kondaira*, egil learen hiruizta geroztik argitaratua, Donostian 1827-an. Iztueta, 1845-ean hil zen Zahiltza bertan.

Baiña, liburu honek kondairaren aldetik baiho askozaz geiago balio du etnografiatik aldetik. Bigarren par tea eta hirugarrenaren zati bat, esate baterako, 45-garren horrialdetik 455-era arte, 273-zitza, laborantza, olak, kofradi, esatiditika, abere ta botanika hitz-terroak, lanak, jokuak, ipulak eta zenbait oitura jator adie rranen ditu euskeraz samur bitaia.

g o i t i k b e h e r a h e r r o r i z e n d a n e n e h i t z m e r k e a

Meritu handia zuen Iztuetak fami mit umil baretik sorturik, itindika-ko ikastaro nagusi gabe, bere herri-etikoko jakintza egurrak eragin da bakarrik bete zuen lana zurera era- matsiko. Egia esan, aski zitzaien be- ta bizitza herri-geotik jasozta.

Ta hori zan bere egilea, R. Serra ka talana eta J. T. Fernandes portuge- sak mende erdi geroago Iberiko Penintsula honetan asiko ziran lan- bera, egin zuen. Berez, euskal lite- ratura beti ez da atzetik ibili.

Gure herri-literatura naizko erra- zoi ta euskeraren bizitza ashi izai- teko. Gure herri-literatura, behar bada musikarekin batean, gure ja- korriko kulturaren egurrak hobere- netaioka dugu. Geroztik ere izan- da eta lantzaritxerik aski A. Goye- naxe, Barbier, Azkue, Barandiaran, Dufau, P. Donostia, Lafitte, M. Le- kuona, J. de Riezu, A. Zabala ata- bar. Mitxelenaik ezan zuten bezala, bertan dugu Europako edozein herri bezin literatura aberatsa. Herri literatura ez baita kuitoa bezala, persona batzuen amaitza, baiñik herri literatura, izenak berak dion be- zela, herri oso baten amaitza da, bere fruitua, bere arnua, jatorriko iturburuetatikakoa.

Iztueta liburu honek kondairaren aldetik baiho askozaz geiago balio du etnografiatik aldetik. Bigarren par tea eta hirugarrenaren zati bat, esate baterako, 45-garren horrialdetik 455-era arte, 273-zitza, laborantza, olak, kofradi, esatiditika, abere ta botanika hitz-terroak, lanak, jokuak, ipulak eta zenbait oitura jator adie rranen ditu euskeraz samur bitaia.

Iztuetak eratu du bertolaria- tzaian lehen berri zetarak ere: Fer- nando Amezkettek 1800-ean Az- peitin izan zuen desaiolo eta Amez- ketako Zabala eta Ernaniko Tra- balategik Billabonan 1801-ean izan zuten sailoa, zenbait bertso jasozten dituelarik. Gogoa izan behar du- gu adu bereko zela Baiñak Mar do ziberotarra (Barkozuko), Erdi-Aro- ko Milla Lasiurko'i egindako ber- tosoak eta era beretan Martin Bañez Añazubia'gako'i, izan daitekez bar- batean egindako bertsoak. Baiña, egia esan, zeartasinez lehen bertsiak eman zituzten, bai-batean bertsoak egiteko oitura holena, Iztueta izan zan.

Iztueta ren lehen lana *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira* izan zen, 1824'an Donostian argitaratu zuten liburu. Bigarren argitalpen bat izan zuen Tolosan, 1825-ean. Eta handik lasterrera, 1926-an *Gipuzkoako sanitu zar eta izaneutzu* argitara eman zuen. Aurrera-zale guztieri gertatzen zaion bezala, Iztuetak ere izan zituen bere etsaiak, eta bere lan zurer hoiगतिक asio- beltzarenak entzuz behar izan zituen, batez ere zenbait euskal idaz- legandik (hauen arteko Juan Jose

Gaihera, Iztueta herri-poeta zen eta bere buruz asmatutako kantak ere baditu. Beren arteik, *Kontu- sari* izeneko iaungo da uski zabal- duena eta ezagunena, herriak azo- ga-gure menderatze ekarri duena.

Ez zan kontomatu folklorerakin bakarrik, eta Gipuzkoako istoriko

Esan duguenez, Iztueta ren lanak bertsi argitaratzeotan omen dira. Pozuko gustea, Berrengarrian urte betetze honetan, bertzi egin deza- keien omenik omena izango litza- ke noski. Ta, ikork meretzitza, mer- rezi du euskal literaturari horren- beate ongarri eman zion honak.

J. SAN MARTIN

## LIBURUAK

### KANTU, KANTA, KHANTORE.

Kordelleren irarkolan. Baiona, 1967.

167 horrialdeko liburu honetan biltzen dira euskal kantarik geienak. Gernikako Arbolatik atera, era guzti- tako kantak daazkik, herria, etsua, lurra, kantu hui- gurriak, jendotasunekoak, amodiozkoak, istorio-naxer- rio, alegiak, itas-kantak, irri eta ritzko, ostitakok, haur eta sehaskakok, eta orotarik. 328 kanta, geienak zaharrak izanarren, zenbait berri ere bertan sartuak daude.

Liburuak ez du biltzaileraren izenik, baina ikusten da P. Lafitte eta L. Dassance jaunen eskuak ibili direla.

### ATALAK. Bitaño. «Kulista Sorta»

64-gn. zenbakia. Irueropena Argitaletaria. Zarautz, 1967.

Bitaño izenordeak gordetzen du Nikolas Alzola, Amai Belandii Berriotxuak, euskal idazle biskorra. Ayul- de'ren azal apurra du eta Erkiaga, Akasolo eta San Mar- tin'en itazurre irukioitak ematen dio liburuari sarrera.

Bitaño, bere gai ugari ta aparotsuan narro dabil. Aukerak berak darabilen gaiak: Elezar, kontu berri, pasaiak; soto-oreak; badoarenak, bari-emoten, alka- rregaz bertutan, jakintzu-oreak; Ipu, gertaera, saiasker- ra, biografia, bibliografia, ortea ta abar. Bere Durango aldeko bikaitera samur batetik, euskal literaturari frista bikaina akitzen dio, edonolako gaitetan lasai dabi- litarik. Gipuztiek ere ez dute eragozpenik izango orre- lako bikaitera jator batean irakurri al izateko.

Liburu mamisua benetan euskal kulturarentzako. Bertoz sari orrellakok.

### ALZO'KO IMAZ BERTSOLARIA.

Antonio Zavala, S. I. «Auspua Liburutegia» 68-69-70 alca. Tolosa, 1967.

Berandu bada ere, Joan zan mendeko bertsolari onak suterue izan du Aita Zavala bezelako biltzailer bat bere lanerekin jabetzen. Buzterratan sakabanatuak eta gal- zorian zeuden bertsoak or daude batiozazumaren at- zean.

Iba'eren amaitza ugaria izan zan. Bertsolari bezala ez da izungo goretakoa baiña bada bertso onik aski bere aldean. Biltzailerak, bertsolariaren bizitzaren ber- riekin ematen dio 383 orrialdeko liburu mardulari sa- rrean. Bertsi biltzeko ibillerak ez dira izan makalak, Euskalerriko zokoetatik aparte, Chicago, Oaxford, Paris eta beste zenbait lekutatik inguratuak dira antzinako bertso-paperez zabalduak zirenak. Orrik ikusten da eus- kaldun ez diran kulturako istuzioetan ere eman zaiola lekua.

Aita Zavala lan ona egiten ari da. Askok esaten dute bertso geiegi argitaratzen dituela, obo zala autu- tuenak bakarrik argitara. Baiña, gerora bertsolari anto- logia on bat egingo bada, lemenagaz bearezeko da gu- ztiak bildu da argitaratzea. Gero etorriko dira aburak eta bereizketak. Gure erri literatura ezagutuko bada azkar bildu bearra dogo, ta au ondo daki Aita Zavalak.

### LO TA AMETS.

Etzebarria'tar Juan Anjel. San Anton'go Kutekesia, Euskal-argitalpenak. Bilbo, 1967.

28 orrialdeko oleri liburuak. Oso lirikoa. Egile beraren Maiale galdua (1966) eta Basoko loreak (1967) antzerako lirika, beste gai batara eramanda, Auker- auzuko seaska kanta eran eginkat dira. Aur euskaldu- nentzat ez dugu liburu geiegirik eta bada premia olekin ere oroitze. Kanta ta ipulak maila eta ugari bear ditu aurretik. Ongi etorria izan badu Anjel langilearen Lo ta amets.

## Lur honetan

- Lur honetan
- ehortziko naute.
- Elizan aterik
- ez dute zabalduko.
- Kanpaiak ez dute
- otoitzera deituko.
- Apaiak ez dute niro
- ofiziorik kantatuko.
- Eta
- lapurren arteik
- nire hilotza
- atoratzen dutanean,
- baxter ilun batera,
- baxter aparte batera,
- eramanen naute
- gauerdian;
- bertan,
- isilik
- manafatuko dirade,
- eskuztatuko dirade,
- haitzurrak,
- lurrean
- hiholi sakon bat
- ebaki arte.
- Jaurtikiko naute
- han barrenean,
- zakur bat banintz bezala
- hondakin triste hau.
- Ez dute gainean
- hilaririk landuko;
- gurutze triste batekin
- ez dute markatuko
- betrirako
- natzan
- lekua.
- Baina hala eta guztiz ere
- lur honetan
- ehortziko naute.
- Ohoro hau ez didate ukatuko.
- Gizonek.

G. ARESTI

## Euskal-Herriko eremu guztietan zabaltzen ari dan bitartean...

### Ene barnean daramaten astoak ez du flauta kasualidadez jo

Ibon Sarasola











Karlos Elgezua'ren «Enbelta bertololaria».

## Karlos Elgezua irudigillea

Euskalerririk ez du izan bere denboran irudigille askorik. Gutxi oien arteko bat degu Karlos Elgezua Lasuen elbarrara. Eibarko erriak antolatutako "Exposición de Artistas Eibarreses" dalako erakusketa, asmoz, mende ontan Joan zaizkigun eta nauhitosunera eldu diran emenez egina da. Aizen arteko Zuloaga eta Olabe il ziranetatik eta, beste zenbaiten artean, Elgezua bizi diranetatik.

Karlos Elgezua, erakusketa onetako irudigille bakaria (besteak, guztiak, pintorak bai dira), eta bear bada Eibar'en ezagutu dugun bakaria, 1938ko azaroaren 3'an jaio zan. Aurtzarotik etorren artira, griaatirik, bere doai bereziekin itur konturatzen ez zan denboran, mutikotza bat zala, eskuratzen zituan paper guziak kartzetx orbatzen zituan. Orduan ziran dibuji eskoletara joaten zan bere gogoa obeto landu nairik, leenago Zuloaga ta Olabe joaten zidan bezala.

Koskondus, irudigillea izan nai zuen eta ori aditorea eman zion zion bere aitari. Bere aita drota zan, ebanisteria baten jabe zan zurgilla eta ez zuen ongi ikasi semearen joera. Seme bakaria zenez, bere jarraila nai zuen zurgintzan, Ogi bidetako errozi auzgatik, galzorian izan zuen irudigillatza. Leenagoz aitarekin asi zan ebanista ikasten, baina nolobait konpondu zan bere asma aurtera erameteko. 16 urtekin lotu zuan Gasteiz'era joateko, zurlanean trebe ziranekin ikastarotik egiteko. Muebleak apantzen zituenetako bat artu zuan maixu. Egunkero errial bat orlatzen zuan, eta, trukez, egiten zituan zur-lanak bertzat. Oraindik ere gordetzen ditu orduan egindako lanak, asko maitatzen ditu orduango aurrerapenen oroitz eta batez ere artegintzarako izan zuen azketasun oroit.

Bere zaletasunaren adigarria dugu bere soldaduzkako denbora ere. Bilbon egintzen soldaduzta, orduan izaten ziran kuotakoa zan, eta ordu asko libre izaten zuenez, Artes y Oficios'ko eskolan sartu zan irudigille ikasle. Basterra maixutat zularik. Uri zan izan irudigilletzakoko lehen asiera.

Eibarrera itzultzean joatxeko asi zan, al zuan ordu libre gutzietan, irudigintzan. 1928'an, Gipuzkoako aldundegiak erabatiko artista berrietako lehenbiziko saria irabazi zuan. Bere alderako aburu anak izan zituan eta Karlos orduan sentitu zan irudigille bezala nagusitua. Paris eta Erroma'ra joan zan museoak ikustera eta orduko eskolan berri jakitera, bere irudigintzari obekuntzak hiltatu nairik.

Gerortik zenbait erakusketa egin zituan, bertan Eibarren, Donostian eta Bilbon. Donostian azken erakusketa egin zuanean, Karlos Ribera'k egin zion kritika berezi bat, nui zion: "Elgezua ondo landutako artista da, bere ekiniza lanaren jabe dana, eta egizko nortasunarena..."

Bere era, klasiku erroka da: Greziako arte zaarra gustatzen zaito, eta baita errenazimintuko Migel Anjel eta Donatello; eta, gure mendeon, Julio Antonio ta orainuk il dan Vitorio Macho.

Azken urte auztan Gipuzkoako Astigarraga ermitoan bizi da. An du bere etxea eta bere lantela.

Karlos'ek hadu beste doai berezi bat ere: euskeltzaleztasuna. Alkar ezagutera eta adiskidetasun zintzo batera eraman guzuzen dozia dugu auzo, Arduratsu jarraitzen dan Carlos'ek euskerari buruzko guztia.

Berakin izan ditudan solasetatik oartu nintzan bere lanik berezietan eta maitatuena zentzuz dituan: Aitano III-gna, Zuloaga pintorea, eta bere aitaren erretratua, Enbelta bertololaria, Ziriako Agirre medikua, Orbearen erretratua, Mendigoizalea eta Getaria'ko parroikian dagoan Kristoa.

Flores Kaperotxipi'k, bere Arte vasco liburuan zion, elbartar oni buxuz zenbait landorioaren ondoan: "está empeñado en que todo lo que lengua que decir, lo diga en sus esculturas". Baina guk uste dugu orrela bear duela gonorazko artista batek, bere lanarekin mintza. Ta ez salerosle bezala iraulti. Ezin badugu konpenitu edo ezin badugu bahiatu, okerra ez dator egillegandik. Berak, bere lana uzten digu, guk eta geroak juzgatzeko.

Elgezua, oso errealdade zale da, bere lanen bidez eman du barnetikako pentsaera ta sentiera, zintzotasunik garbiantan. Au ez da ez una eta ez lekua gauko eraberriko bideekin konparazioa egiteko. Gaihera, bere formalista izanaren, abegi ona egiten daki abstraktuari ere artearen esperientzi aldetik. Ongi iduritzen zaito bikoiztak bere barnetikoko kezkatik dagozkiona sortzea eta eskeintzea. Berak berezik eman duan bezala.

Karlos Elgezua zoroituz sentitzen da bere gogozko bidetik bizieta eskoni al izan duetako. Ta, ez da gutxi norpore zaletasuneko ogibidea ta bizi-bidea lotze au. Batez ere bide u ezertasuna sortuz jardutea danean, gure irudigille onen bezala.

I. SAN MARTIN

## ABESTI BARRIAK EUSKERAZ

# Ondarrutar Argoitia anai-arrebak 90 konzierto eman dituzte ta beren lenengo dizkoa laster zabalduko da

Ondarra'n jayo ziran Irune ta Andoni Argoitia, ta an bizi ditara Velarde kalean, 4s.

Urie t'erdi dira, euren kitarra ta bandurria artuta, Euskal Erri zabalean abestuten dabilazala, ta ZERUKO ARGIA'ra, ko alkar-izketa bat eurek az enkita interesateca izango dala, iruditu yai.

—Zenbat nebarreba garie?

—Gu biok, bakarrik.

—Urteako

—Nik 16 —dizozku Ando. nik— ta nire arrebak 18.

—Zenbat bida jo doxue jendearen aurtean urte t'erdi ontan?

—Ori gaiz da esatea, ez du gu ezer apuntatu ta.

—Baña, gitxi gora bera?

—Imini egizu 90 konzierto.

Nik entzun dodaz abestuten Larrondo'n, Sondika'n eta Sopelana'n. Aurten, euskal jai us, kolan egon dira abeslari. Ez do gu oker iztikoko esaten badogu 200.000 personalik gora izango dirala Argoitia nebarreba abestuten entzun dabezanak. Baña jarraitu daigun galderak egiten.

—Zelako abestiak abestuten doxue?

—Batzuk, euskal kutsukoak, emen soriutakoak, eta ni dala, batriak edo gitxi eusgunak. Besteak, mundu zear fama artu dabena, edo politik eta sentitkorrak iruditzen yakutzanak.

—Norak imiten dantzuez izak?

—Dukizuez, guk euskeraz bakarrik abestuten dogu. Euskerazko itan, batzuk Agustin Zubikara'k imiten dauzku. Beste batzuk, beste adixkideren batzuk (Lurdes Triondo'k eta abar). Azkenez, abesti askoren izak guk, bion artean imiten doguz.

—Egin doxue diskorik?

—Egun batzuk barru zabalduko da egin daukuen lenengo.

—Zenitzuk abesti dagoz disko orotan?

—Diskoaren alde baten, iru

ritmodunak, dantzatuak al izateko: "Txoriturnak sokan" (er. deraz "Marionetas en la cuerda"), "Gaurko gazteak" (Italia-ko "Cuore Mito") ta "Ames, Ames" (ingelesez "Sealer"). Beste aldean: "Ajarguna", Lurdes Triondo'ren izak eta Alta Otalora'ren musika, "Eperaren Kantata" euskal abestia ta "Maitasun Itzak" (katalanez "Paroles de Amor"), Joan Manuel Serrat'ena).

Nik orain emen puntu ta apar te egin netke, baña, ta parkatu Irune zozter geyago esan bear dot. "Txoriturnak" baték kontan daustana, Bearrezkoa dala esatea uste dot, zuen euskaltasuna bere lekuan iminteko.

An da ba lenago baten kontan neustien jasorikoa.

Ondarruko plazan, igande arratsalde baten, klozkoan musika jotan eta gaztedia dantsan.



Ezkerretik eskubira: Andoni ta Irune Argoitia ta eurek az, Txabi Billaberde, VOX dendako usaba ta «Soroak» taldeko zuzendaria.

—Len esan dogu 90 konzierto gitxi gora bera emon doxue-la ta jankin gura senduiko non izan diran.

—Orabarte, euskal joiyelan geyekak, errietan. Uri anditara ez gars jonn. Gabon egunan (datorren ilaren 24'an), Bilbo'n abestuko dogu lenengo, Santiago Apostol teatroan.

Irune ta Andoni Argoitia'k musika asko dñke. Biak dira txistulari anak, eta txistu ta jone trakaetan dabe ondarrutarra. Orrezaz gaitera, Irune'k kitarra ederto jotan dan, baita bandurria, Andon'k, bandurria, klarineta ta armonika. Mutilak, batzillera 6'garren urtea ikastan dabil Gasteiz'eko Manuel Iradier Ikastolan.

Eta orain, Irune'ri geldera espzial bat.

—Noblortik?

Irriparrez erantzuten dauku:

—Ez, Ez nik eta ez Andon'k.

Oneik dira Irune ta Andoni Argoitia, Eurekaz itz egitea berran dala ategituekora, ain di ta ulal ta jatorrak.

An egoan Irune, beste ondarrutar neskatilla batzuk eta olako baten mutil bat urreratut, ten yake ta Irune'ri galdetu:

—Ballamos?

Irune'k bere inguruaren egozan adixkidea, irriparrez, galdetu eustoen, euskeraz:

—Zer esangotsat ba?

Mutillaren arpegian beste esprezio bat nabaitu zan eta arin mekeari erantzuna urten bañon ten:

—Mesedez? —esan euston irriparez.

Ein Irune'k, euskeraz erantzuten, ez eban geyago dudarik euki.

Mutilla txalpartari famatuak diran Aritza anai gazteena zan, eta ordutik ona adixkidea euki.

Irune ta Andoni Argoitia adixkideak: Jarraitu aurrera zuen abestiak. Olan euskerari lagunduten daukoaz, ta euskeraren bidez, Euskal Erria'ri, Jarraitu olan, gure gaztediarentzat ejenphu ona izaten.

Xabier GEREÑO



# GAZI-GAZAK

# IZKIRIMIRIAK

## «ZEZENKETA XELEBREA»

Hizkuntzen literaturarekin ere berdinia jasotzen da: nagusiña, landuena, giartuena, zertutirena, sakonena, teknikoena, zientifikoena ta abar. Ta txirreña danean ere, maiz, aski da norperana izatea. Norperaren jatorriaren gunetikakoa. Norperanean arkitzen dugulako besteretan ez dan gogo-miharen norririko zorbait. Ta, baldin bada norbait norperanean bihotzarentzat guza hunkigarrik arkitzen ez duena, jakinduririk ezarena da, edo besteala bihotz gogorkariz. Lehengoago izan ditteko guok gure ikastaroak eratzeko eskubiderik ezaren ondorioakoa (norper herra ezagutzeke, nekezagoa baita norper burua ezagutzen); baita bigarreña askozok okerragoa da, bihotz gogorkerik ajolarik eza, zikoitzkeria, zeren inoiz inungo herriak ez baitu bururik jaso gizon zikoitzzen gandik. Zikoitz horetakoak ditugu beren buruak kulturadun jo ta norper herriaren kultura ezagutzen ez dutelako, arro, euskara ta euskal literatura mespreziotzen dutenak. Bada anhitz hola gure alorran. Adibidez, beren istudiotan ikasiko zuten eta burutz ere gogoraziko dituzte La Fontaine edo Semanegoren alegiak, baiña ez dute jakingo Bizenta Mogel eta Pascual Iturriaga nortzuk ziren, lan berdinia euskeraz egin dutelarik.

Frutus emateko sustraiak behar dira, sustaiak, norperari dagokion lurran ongi errotuak.

Ez Ez dugula literaturarik? Ez gu ibili geran eskoletan erakutsi digutenagaitik. Baiña ordua da jakiteko, euskaldunok orain arte literaturari egin diogun jaramonarentzat literatura aberestegia ta ugariategia dugula.

Aski aspaldikoa dugu Etxeparek 1545'an argitaratu zuen liburua, baita ere Joannes Leizarragak 1571'an argitaratu zitan hirurak. Axular'ek 1643'an argitara zuen Gero hobereña bada ere, beste biak ez dira euskeraz idatzi diranak txarrenek; ez da gutxiagorik ere. Ez gñitako gaitzki gaur argitaratzen diran txarrenek halez bezin onk balira.

Axularren ondorean, guro kulturazko literaturak, gorakada zoziontsu bat ezagutu duon. Ongi konprenitzeko orain gainera, zeren Erkiaga adiskideak zion bozala: «Konpreni eziña ditekian izkera ez du inortxok ere ezertaroko nahi izanen». Ta haietan ez du bide nekegarrik arkituko alfabetizaziari ekitzen diot euskaldunak.

Euskaldunen alfabetizazioa honok ere izan ditu bere langilleak. 1761'an Kardabera'ek argitara zuen Euskeraren berri onk eta ondo eskribitzeko, ondo irakurteko, ta ondo litzigiteko Erregiak izeneko liburuxto bat, 1954'an Tolosako «Auspoa Liburutegiak» berriz argitaratu duena ta oraindik ere probetuzkoa dena.

Bestaldetik, Julien Vinson'ek ekin zion egiazko lan bati guro kulturazko literaturaren eszagupiderako, azkenean Essal d'une bibliografie de la langue basque izeneko lan batean 1891'an argitara zan bilduma. Manterola ta Michel bezalako biltzaileeri ere ez digu gutxi zor.

Gorago, Nikolaos Ormaetxea («Orixa») irten zan lehen literatura kondairarekin, ta euskeraz gainera: Euskal literaturaren aize edo edesti laburra, 1927'an «Euskal Enslaoen» argia ikusi zuana. 1931'an Campion'ek eman zuen beste literatura kondairaren saio bat bere Euskaria (Décima serie, Origenes del pueblo Euskaldün, Tercera parte, Capitulo II). Mitxelena'k bere Historia de la Literatura Vasca, 1960'an. Eta 1961'an, izen berdianekin, Villasanten kondaira nagusia argitara zan. Azken bi hauek derri-gorrezkoak dituzte guro literaturaren kondaira ezagutu nahi dutenok, ta baita alfabetizazio kanpañak asuko direnak ere beretan arkituko dituzten lurrreagaitik.

Baiña halaz ere, alfabetizazio kanpañan arkituko dituzten libururik onenak antologizko bildumak izango dira. Ez da posible guzien berri ematea eta aski izango da premiazkoenak eta batez ere oraindik salgai arkitzen diranen berri ematea.

**Le Groupe de Danseurs Basques ANDRA MARI se produira a :**

COMMERCY	14 Juillet 1967	Vendredi
SCHOTTEN	15 au 21	
YVOIR	22 au 23	Samedi et Dimanche
PLOMBIEGES	24	Jeudi
LE THILLOT	26	Mardi
ST REMY	27	Jeudi
SENONES	29 au 30	Samedi et Dimanche

**PROGRAMME**

- DANSES DE GUYPONN (Avec huit danseurs)
  - Agure
  - Azken-dantza
  - Doinabeko zortitoka
  - Urtil-dantza
- LIZAKIN'KO MATELOTA-DANTZA (Avec huit danseuses)
- TYSTU, SOLISTE, "MARTITU"
- DANSE DE LESBITIO (Bouge) "KALKARRAMAKA" (Avec un danseur)
- DANSES DE SOULE (ZUMERGA) (Avec cinq danseurs)
  - Bosketibaz
  - Godelat-dantza
  - Sabote
  - Azken-dantza
- MARIL YOKI ET ZAR-DANTZA (Avec neuf danseurs)
- CONTAINS ET DANSES DES POMMES (Avec huit danseurs)
  - DANSES DE BISCAYE (Avec huit danseurs)
    - Zortitoka
    - Bañeko
    - Mak(1)-dantza
    - Tren-Karamak
  - DANSE DES BRICHAUX (Avec huit danseurs)

**II**

- DANSES DE MARIKIEUX (Avec huit danseurs)

**39 JOURNEE ARTISTIQUE 13-31 JUIN**

**ANDRA MARI**

GALDAPANO (Biscaye)

## ANDRA MARI, Dantzari Taldearen Irugarren Ibilte Europarra

Orain 10 urte sortua dan Andra Mari Dantzari Taldea ille ontako 13'an litten dan Prantziruntz eta bide batez, Luxemburgo, Alemania, Belgika eta Suitzara ere elduko da.

23 dantzari eta 3 txistulari 7 urtan emango dute satoak. Urtek, onexek dira: Commercy, Plombières, Le Thillot, St. Remy eta Senones, Prantzian, Schotten eta Yvoir, Belgikan.

Ibilaldia, batez beste, 5.000 kilometro luze da eta kilometro denak autobusuan egingo dira.

Europar elkar ezagutzea da ibilte onen oliburua, elkar ezagutu eta onela lagun egin, musika, abesti eta dantza errikolaren bidez.

(2'garren orrialdean jarraitzen du)

# EUSKAL ERRIETATIK

## GIPUZKOA

### LEGORRETA

**DANTZARI TXIKI TALDEA**  
Jaialdi guzietan gure euskalduntza paregabeak alaitasun berezi bat izan ohi dute. Erri onetan orain artean «Irrintzi-Alai» taldea izan da, baina gazte geinak soldaduskara joan bear eta sakabanatu bearra izan zuten.

Talde orietako Xabier Lasa trebeak, umetxoan taldea sortzea erabaki zuten; eta berari eskerrak, gaztehen jaialdi auzetan sei-zazpi urteko umetxoak trebeki asko dantza egiten ikusi ahal izan genituen.

Baña zoritxarrez, gure Xabier jatorriare ere iritzi zaio soldaduskara joan bear or... Bere utsunea betetzeko beste norbait agertuko baitzake...



GURE TXISTULARIAK

Azkenengo urte auzetan erri onetan kankoko txistulariak besterik ez ditugu ikusi. Baina on Mikeleri eskerrek, gaur egun neska-mutil talde polita dugu. Erriko jaialdietan egin zuten euren lenengo agerraldia eta urrengo, gaztehen egunean... Ara emen euren izenak: Imanole Arraegi, Josebe Agirre, Ane Josebe Artola, Josune Esnal, Begoña Lasa, Karmele Gaztañaga, Inorenztio Artola, ta Joseba Andoni Larrauri. Milla esker, on Mikel, erri onen alde egiten ari zeranagatik!

### ZINE-FORUM ETA KONFERENTZIA

Iloro bezela, oraingo onetan «Fresas Salvajes» agertu zigituen. Eia egun esan, Ingham Bergman-ek ematen digu lanik praniko bere zorieko korapillo oiek eskatzean... Oraingo onetan konferentziantea Esnaola apaz jaunna izan genituen, eta astronauta ta satelitetar mintza ziztaigun. Mundu berri oietan inork ankarik jarriko ote du gero...?

E. ASKA

### EIBAR

**ARRATE-ZALARI**  
Poziak irakurten dodaz zeure idaztiak, «ZERUKO ARGIAN» argitalduten dozuazak.

Birritan eleizgatak aittetu dozu.

Atseingarri izan yatar biak. Zeu baño zarituzago nayan lez, neuk bez zozzer esan gure neuk, zeuk dihozuna aldeztuteko besterik ez.

Guda-egunak arte Eibar-ko eleizetan dana edo le dana esukeraz egin eroyen. Geure Ritzaiñ Urroz jaunak ederto egiten eban esukeraz, berba egin eta idatzi be baita. Neuz gar daroat berak emoniko eleiz liburu ederra: «Zeruzateko Indarrak», On Eugenio berak argitalduri-kua.

Beragaz batera egozan abadiak izlari bardiñ-bakukaz zhezan. Ondio bizi yakuz aih ezagun dirian Manterola eta Ibargutzi, bala bere jaioterri Arratia eta Basauriñ bestia. Emetik agur biotzako bat biadluten deutzat.

Geror ezorri yakun baserritar bat, lizaritzarra bera, Aginaga J., esukeraren gosrotu amurruata ekarrela, eta geure artian ekan zan urte luzeegituzelan esukera eleizatik esbesteratua euki ebana. Ezin stitutu leitez, ikusi barik, berak geure artian egin ebazanak. Ostikoka jartu eban eleizatik geure berbetea maila, aihbat eta aihbat jakitunek goralduten dabena... Ori dok kultura, eri, abade bategan Egumen baterako, zertzelada guziak ondo ar tu eta gordeak dagoz.

Noizbat ordia, ez guk gure beziñ aguio baina, urten eban emetik befiko eta amalau-ambost urte ba direz bere ordaz etorri yakula arrezkero geure artian daukogun egiazko ARTAIN ONA, Lasa J. argi, artez, zintzo eta on utsa. Bego guz guz urte asko-askotan. Eibar-ek gutretzola ezin lez ukatu, asko ganera garu be. Berak ostera sartu dau euskera eleizan eta dagokion lekua emon dautzo. Dagokion lekua difot, tital, ez berak gure leukena baño. Bere laguntzaleetan ba dagoz ordia aurreko «ZERUKO ARGIAN» Arrate-zalek aituten emoten eban GORROTOKUA agertuten dabena. Ez dabe esukeraz jakinda be, tutik egin gure. «Zergatik?»

### AGURETXU

### IRUN

**GURE ERRI-JAIAK**

Aurtengo gure erri-jaiak bukatu zaizkigu eta poz aundi barekin aitoritu bearrean gura euskal kutsudunak izandu dirala.

Gure Udalak eratuakoz batzaldian esukerari ere leku eman zitzaion eta bertan «Kamiñazpi» izenez idatzi oi duan Joxemari Etxaburu Jk. eraman zuan lenengo saria. Asko pozatu giñan. Idazlan orren izena izan zan «Erri-jayak». Zorionak zuri eta zurekin batera bigarren saria irabazi zuan Jose Urriz Etxegaray Jri. Batzaldi ontan malko jardun zuten Anai Berriotxoa eta Loidi eta Artola Jk.

Uztailaren lenengo egunez «Uranzu» pelotalekuan «Ez dok amairu» izeneko saillak sayo ederrak eman zizkigun. Lourdes Iriondo xarmant egon zan, batez ere «Maitasun itzetan». Ezin zitekean obekil Lertxundi zoragarritasunez lertu bearrean «Gure hide okerrak» abesten. Lekuona bere «Antziñako musikalerria» azaltzean. Yoloak-tarrik danetan oso-oso ondo. Bitarreetan Uztapide, Lizaso eta Agirre, beti bezela.

Arratsen antzokian giñan «Iru-garren Itza» deritan antzerki erakusgarria ikusten, lendikan ezaguna genduan baño.

Emendikantzex txalorik gatsuenak bijazkie antolatzaleel. Beajonduzetela.

### AJOLAGABEKERIA?

Eta ez nolanaikua ere zero gure asteroko onena.

Miñ ematen du izan ere, arpidetu, iandeoro dana irakuritzeko beto lasala artu, **ETA EZIN IRAKURRI.**

Izan ere dana utsez beteaz argitalzen baita.

Neonek idatzia, irakutzen gañera, lerro edo errenkarak gaizki emanda eta ZER ESATEN DAN EZIN IGA-RRITA.

Amorragarria benetan.

Pozik asko irakurriko nituzkenak, **EZIN IRAKURRI.** Alegin guziak eginda ere, ezifn zer esan nai duan antzeman.

Batek baño geiagoz esan didate, neonetari, ez dutela idatzi nai **ALIX ETA ZABARKERI AUNDI AUXE ZUZENDU ARTE.**

### TXANTXANGORRI

### AMEZKETA

Uztaren zaspigarren egunez Jau-naren pakean ill zitzaigun Eustaxi Lizaribar Etxeberria. Andre egitan elizkoil, maratx, zintzo eta benetako kristau etxekoandrea.

Eliz laguntza guziak garaiz aturik Jainkoak bereganatu zuan. Goyan bego!

Larogei-ta bederati urtedun joan zaigu Andre Eustaxi gure gaurko Erretore Jaun Agurgarriaren amatu on-ona eta urte asko-askotan baita ere gure Erretor izan dako Lizaribar zanaren arreba.

Ederki asko agertu zuan erri osoak zion original aundia. Bere illetetan eliz oso gañeza zegoan. Bere jaioterri Eilduayen lur-eman zitzaion eta arañu lagun egin zioten amaika izan ziran.

Betikoki atsedena eman bezaio Gure Jainkoak Andre Eustaxi-ren amia ezifn obeiari eta bere sendi guziak hajo beza gure samin agurrikan biotzikueña ordu nai gabetsu ontan.

### TXINDOKIPETAR BAT

### LAZKAO

**ABATA**  
San Inazio egunean, Jaunak lagun arratsaldeko 5 terditan egingo dan elizkizun edo batean bedein-katuko da, Lazkao ko Beneditarren aurrengo Abata. Len Aita Nagusi-zan Aita Mauro sukeratu zuten alki orretarako.

Nai dun jende guzia sartuko ote da eleiztan? Paretek zabaldu edo alkiak kendu edo... zerbait egin barik dute. Izan ere denok zai-zai bai gagoz.

Zorionak aita Mauro, eta eskerriki-kasko, Lazkao ta Euskalerri osoan alde egiten duzuten guziagatik. **PISZINAN ITTO**

Benetan illuna San Fermiñetako igande illunabar ura.

Laister jakin zan erri osoan, Enparauzido Ifaxio Mari mutikoa itto zala.

Ixtasoroan asarrerik gabe, ibaiaren maitzurkeririk gabe, pizina basteen.

Iroren erririk gabe, igari ez zekilla ta...

Maizegi entzuten dira ola moduzkoak, eta ze ote liteke ikastarokat bat antolatu, inguruko ibaien bitan, neska ta mutil koskorrieri igari erakusteko? Ondo asko dakiten ariak ba dira ta ia norik eltzen dion ariari.

### AZIA

### SORALUZE (Plazentzi)

**MUNDUAN ZEAR**  
Españi'ko laterrian ikuntza ofizialak, gaztelarrik, beste ikuntzak itozteko naya somatzen degu. Gure esukerak orain arte ez du sarrerik izan lenengo mallako ikasketetan, ez bigarrenengoetan, ez da ere Unibersidadekoetan. Ikasle euskaldunak, zenbat urte igaro dituzte gaztelar Gramatika ta Eleria ikasten, erbesteko ikuntzak ikasten, minuruki erabili gabe esukeraren alde?

Irratiaren laguntza noroñi elzen dan ba dakigu ta Teleikuskiñak Añetoa'ko bertsolari-txapelketa arte etzuan esukerarik ezagutzen.

Laterri asko dira ikuntza bat baño gevago ofizialik erabilitzen dituztenak. Toki oyetan ez dago emengo prolemarik gauzak bear dan bezela konponduta dituztelako.

Artu dezagun FINLANDIA. 1808'gn, urterarte Suezin mendean arkitzen zan ta gara! artan Errusi'ne-n erori zan. Bere askatasuna 1917'gn, lortu zuan. Bere ego aldian

daude erririk aundiñak eta bertan geyenbat azaltzen da Euzkiaz izan diruan artu-emanak eta nasketak.

Bi ikuntze erabilzen dira, baina finlandera, suzeleraz bestea. Finlandia izena suzeleraz da. SOUMI da bere izen finlandera. Bertako berri-hillak kankoro atzeratzen diranean SF (SOUMI-FINLAND) ezaugarri bezela eramaten dute.

Gure txiki-dentorban uriburuarren izena HELSINGFORS suzeleraz izenez ezagutzen genduen gaur HEL-SINKI izen finlanderaz ezagutzen degun bezela.

Ertien izenak, kale izenak eta abar bi ikuntzetan azaltzen dira naiz suzeltarrak 10% bakarrak izan.

Bost ekan bat izapirangi ta aldizkari atzeraten dira finlanderaz ta eun bat suzeleraz.

### ASMO EDERRA

Orain egun batzuk dirala egunero-ko batean irakurri genduan nola artu duan asmoa Ori'o'ko alkate jaunak, erri artan sorizen diran prolemak, nolanaikoko izan, lenbi-z baldetea erri artako Gurasoen Bazkunari eta ayen iritzia artutakoa, orduan bear dan bezela jokatuz.

Nola aspaldiko urtetan orrela jokatzen ikusi ez degun, ori irakurri genduanen poztu egin giñan eta artu genduan asmoa lerro onetatik pixkabat alderitzea ta zahaltzea jokatze ori ia beste errietako agintariak orrela lana egiten ikasten diran, Ori'o'koak bezela. Gure utsez ori da egin bear dana.

Uri bakoitzak izaten ditte bere arazok eta errian bertan konpondu bear. Ori'o'ko alkateak bezela jokatu ba genduke, aurretik ikusi az erigitae Komeni dan azalduz erroko guraso ta gazteari nolako arazoak dauden, laguntasuna izango litzake andik edo emendik eta zer esan asko denok lezake. Nola egin bear dan? Ba daude gure errian Bazkuntz ta lagun-artek, erria maite dutenak-inoiz agertu duten bezela... oyei egin bear galdetuz ta erantzun oyetatik ikusi zer komeni dan prolema bakoitzean.

### KARAKATE

### ERRERA

**LURDES, ERA ERROMES ALDIA**

Errera'ko parrokia eratu ta ill onen 30 eta 31, ean, erromes aldia izango da Lurdes, era.

Autobus bikoñetan izango daibil-laldia.

Ibilaladi saria, 575.—laurleko (pé-zeta) izango da, juan-etorri eta egun bateko ostatu'kin, bakoitze-na.

Irtengo da 30'ean (igande) goizeko sotoziretan eta etortera izango 31, ean (ñaki Deunaren egun-ean) iritxias Errera'ra amarrak aldean.

Joan nai dutenak, lenbati-len eman dezatela beren izen abizenak, bada ia osatu dira autobuseko lekuak.

Muga igarotzeko baimen berezia izango da.

Azkar ibilli bedi Lurdes, era joan nai duanak erromes aldi ontan.

### EZKONTZAK

Joan dan illean, Lezo'ko Kristo Donearen eleizan ezkontu ziran, auzo ontako ondoreñoa, Muxika eta Arrigi, tar Mirari eta Oartzuban jatorra dan Arozeta, tar Andoni.

Biak orain arte «JARRAI» antzerki taldeko antzeslariak izan dira, eta laloak. Aurrrera ere «JARRAI» zintzo zuen bizimoduan, bateaz ondo, orain arte bezela zuen eginkizuna. Zorionak eta betiko.

### NASTE BORRASTE

Orain berriro «jubilatuz» da gure adiskide dan, Muxika, tar Jose, beregeita amar urte baño geiago toki batean lanean egin da. Ez zeok gaizkil!

Bare lan bukaera egunean jai baldi bat ospatu zioten bere lantegiko lagunak eta eskaintz batzuk opa ere bai.

Orain or ikisten degu osasunisiu, pasiatzen, lagun artean eta baita ere

noizik bein arrantzara joaten. Orre-tarako bere laguneri opari bat arranz-itzako tresnak izan ziran.

Ixtaro degu laister, arrantzale jator bat egiñik opako digula bere arrantzaz berezi bat lagun artean apari goxo bat egiteko. Ala izan du-dilla eta lenbaitien.

Urte askoan orrela JOXE.

### KORTARA

# ARANTZASU'RA BIDEAN

Gure gazteen 1987'garren urteko joera Arantzazu'runtz

**GAZTE!** gure aurtengo eguna urreretzen ari zaigu. Arantzazu'ra gabez egin ail degun joana. Abuztuaren azkenengo larunbatean izango da.

Zuen biotzetako gerra or piztuko da, kristau espirituruaren arnas eta suaren agerari. Orrek erre bear ditu egun aretan zuen asmo ta nekeak.

Erne, beraz, gazte, Arantzazu'k urteroko dela biiltzen dizu. Andre Maria zai dez. Bideak aldaipa dute; balha gañinak biotzarren atsegiña gordea du zuentzati!

### ATAUN

**IZARDITURIK...?**

Sta. Ixabel eguna da. Egun senti eder bat Atauñ'en. Aitzaoko mailoak diridiztatu daude kale txuloetako illunaren gain. Poz-jario dago izadia. Gendea loztorroan dago bitartean.

Ai... bañan! bañan ez da entzuten kankarik, ezta susko-zirin ziritarik ere, txistulariak gutxiago. Ez al-da ba gaur «Santixabela»? Bai, bañan 1967'garren urtea da. Udalez-tekoko ez-omen dihoaz aurtin Aya'ra. Naiago omendute surten ko-tsean jaatera. Gutxiago nekatzten omen-da ja...?

Ara or gure erriko sukalde as-kotan edukitako alkar-izketa... Zergaitik elkar-izketa au?

Ager dezagun itz batuetan gure arazotxo au bere egoera guztiari: Erriroz guztiok dakigun bezela, Atauñen oitura da: Sta. Ixabel egun-ean, mendiz, Aya'ra juan-etorria egiteko, Udaleztekoak, erriko seme, txistulari... ta abar baten dirala.

Bañan ara aurtun zer ateraldia eman dien gure mendiz oeri: «Aurtun ez gaitzék mendiz. Egia nai bear.» Zaar-berritze bat aya nai izan dute, bañan berritze au ia berritxukiari ber gertatu da; bada as-prituko usario zar bat ausi nai izan da, ueste izanez aldateta onen izatea beren eskuetan degola. Gendea, arrazio guziarekin, zapuztuta geliditu da.

Bai, aurtun ausi nai izan dute ibi-lladi au udaleztekoak: Zergaitik? Zefen baimenarekin usario bat kendu? Zein dira oek gauza au kentze-ko? Oraindik aundiagoak ikusi bear ditugu!

Ez, nere utsez ez dira nor gauza

(8'garren orrietleñan jarraitzen du)

# Euskaldunen Alfabetizazioa

Lehen ta hoberena P. Lafitte'k egin zuen Euskaldunen Lore-tzgia dugu, 1931'an agertua. Lehen zatih hau (bestarik ez da argitaratu) 1545'etik 1900'era artekoa da. Villaneta'ren Gramatika labur'ek badi bilduma txiki bat, baina berak eukaturik, osotua osatu geroz geroz Omeñteberria'ren Euskera izeneko liburu-ruan, 1959'an Zarautz'en argitaratua. Irigaray'k gertatutako XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak (Irube, 1958). Euskal idazleen lora-tzgia (Bizkaiteraz-itziauz) 1965'ean G. Etxenaguiak multikiopiaz argitaratua. Uste dut aitia dela. Baina berasu ari da orain gipuzkoak idazleen bilduma bat era berean atontzen.

Bertsos egindako bildumak, alfabetizaziorako metodo bezela hain onak ez badira ere bada hortaz aihntz, ta arkitu ditzakee-nen nagusieta eta osoena A. Onandia'ren Milla euskal-olerki eder da. 1954'an argitaratu zana.

Horrez gañera, oraingo idazleen izlauzko lanak ugari dira Zarautz'ko «Kulika Sorta» eta Tolosa'ko «Auspoan» argitara-tunak, beste zenbaitak partikularzki atera dituztenetik aparte. Ta huiek bezin estimagarria da urrengon aztertuko dugun ha-rril literatura.

JUAN SAN MARTIN

**Zeruko Argia**  
Zuzendaria: JOSE IGNACIO GABILONDO PUJOL  
Naparoko-Kantutari ta Aragoko Kaputxinoak argitaratua.  
(Carlos III. 22. Pamplona)  
DONOSTIA'n:  
Oquendo 22. Telf. 26686  
ARPIDE-SARIA:  
Urtekoa ... .. 190 pta.  
Aldez artu nai bada, galdetu.

# Zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 4 PEZETA

## EUSKALTZAINDIAREN UZTAILLEKO BILLERA

### Eskoletako liburuak, Ministroari eskea'ta Alfabetizazio gai berezienak

Betiko otolitzak eman dio asiera il ontako billerari. San Martin, Euskaltzaindi'ko idazkariak, irakurri du, urrengo, aurreko illeko billeraren agiria, denak ontzat emanaz.

#### ESKOLETAKO LIBURUAK

Euskal ikastoletako liburuak eskatzen genituan Garagarilleko billerari, eta asi gera erantzunak artzen. Tudola'tik dator eskutitz bat, ango jesulagun batek Bigarren Irakaskintzarako egina'k dituan liburu batzuek situatuz. Xalbador Garmendia, apazak ere ba-du ikastoletako beste bat eta Lekuona apazak, Seminarioan diran beste liburu batzuen berri ere ematen digu.

Euskaltzaindiak ba-du ortarako Batzorde bat aukeratua ta texto olek eskuan nai lituzko, aztertze. Kopiak eskatzea erabakitzen da.

#### MINISTROARI ESKEA

Udaran, Donosti'ra etortzeko da Ministroa, ta Euskaltzaindi'k aukera ori, bere eskea berritzeko artu nai du. Pedro Irizar jaunaren bitartez egina da berarekin itzez-itzez ari-tzeko baimena. Ta al dala onela egingo da, euskera irakaskintzan sar dezaten lenbailen.

«Amigos del Pais»-koen buru dan Alvaro Valle Lersundi'k eskutitz bat egin dio Euskaltzaindiari, au esanaz: ongi ba-deritzio Euskaltzaindiari, bera ere gurekin batuko dala Ministroari esko ori egiteko. Asmo au onartua izan da, ta Batzordekoak Valle jaunarekin egon dituzela, erabakitzen da.

#### ALFABETIZAZIO DALA-TA

Londik esana zan, nola gazte talde bat euskeldunei euskeraz irakurtzen eta idazten erakusteko asmo-tan dan. Auek San Telmo'n eskatzen zuten lekua lan orri laguntzeko.

Leku ori «Amigos del Pais»-koena da ta onok gogoz eman du toki ori bear dana egiteko.

Etzaburu jaunak ere eskutitz bat egin digu, «ANDANA» itza aztertuz.

#### BILBO'KO EUSKAL IKASTOLA ZABALTZEN

Irigolen Alfontso jaunak, herri on bat ematen digu: Bilbo'n ba-da AZ-KUE zanaren izeneko euskal-ikasto-

la bat, ofizialki ezagutua. Ikastetxe onek bere lana geltu egin du ta toki berriak eskatzen zituan. Ortarako, ikastetxearen alboan dagoen beste etxe batean alogeran leku herri ori artu du; ta orain ikastetxeak lengo lekuak beste ainbeste zabaldu ditu. Beraz len alako bi da orain ikastetxea.

#### EUSKAL ANDEREÑOAK LAGUNTZAILLE

Ikastoletako lana erosoago egiteko, irakaskintzan ari diran nexka mailtrak Euskaltzaindi'ra ekarri nai dira. Ikastoletako Euskaltzaindiak izendatuta duan Batzordeak, euskal-ikastoletan erakusten ari diranen itza entzun nai luke, bear dan guziaz tajuz antolatzeko. Aitatu dira nexka batzuen izenak, eta bata ta beste-ari idaztetokan gelditu dira.

Irakasleei laguntzen ari diran zenbait jaunen izenak ere aitatu dituzte ta auel ere gure asmoen kontu emango zale.

#### TXOSTENAK

Satrustegi apaiz naparrak, bere lan bat irakurtzen du. Ortan ari dan taldeak izlari batzuek nai lituzke, euskal-literaturaz zerbait adierazo dezaketenen az, ikasteko. Ortarako izlariak aukeratu dituzte.

Alfabetizazioaz, San Martin jaunak itzegiten du. Ortan ari dan taldeak izlari batzuek nai lituzke, euskal-literaturaz zerbait adierazo dezaketenen az, ikasteko. Ortarako izlariak aukeratu dituzte.

Lartzabal apaizak, Bidasoz aruntzako Euskalerriari gai ontan zer egin dan adierazi digu. Lizundia jaunak ere beste ainbeste egin du, Bizkai aldean zer egin dan agertuz.

#### TORIBIO ALTZAGA SARIA

Berriro sari au ematekoak dira aurten. Saria erabakitzeke balia, malkoak, juezak, erabaki bearra zegoen. Auek, Lartzabal, Beobide ta Aresti izan zitezkeela esan zan.

Beobide jaunak Euskal-Teatroaz iru egunetan Zaldibar'ko errian egin diran batzaldia'k aitatu ditu. Ango lanak nola izan diran, eta batzore Ricardo Salvat katalandiar gazteak nolako laguntza ta erakutsiak eman dituan agertuz. Asmo aundiak dira ontaz, eta aurrena norbaitezuek gai au ikastera bialdu bearko dirala dio, euskal-teatroak aurrera egin dezan.

Erkiaga Eusebio'k diru-kontuak bialdu dizkigu. Onela Euskaltzaindi'k Donostia'n eta Bilbo'n dituan txanponen berri jakin degu.

Jakin degu ere Napsar'oa nola salatzan diran euskera alde. Onela jakin degu Zangotza'ko Lore Jokotzan, euskal olerkiak ere sartu dirala. Iru sari izango dira, beste leku batean esaten degunez.

Orrez gain, Iru'ne'n «SEMANA INTERNACIONAL DE ESTUDIOS» barruan euskerari ere lekua eman dituzte. ASTE au Abuztuaren 28'tik Aotzuaren 3 arte izango da. Abuztuaren 31'garrenean, eguadiako amabiterdian ENSKAL MEZA emango dute.

Betiko otolitzek bakutu da onela il ontako Billers.

AMILLAITZ



## Euskaldunen alfabetizazioa

### Herri literaturaren emaitza

...there are few things in which a nation reveals its character so fully as in its folk-literature.

Rodney A. Gallop

A Book of the Basques


(...gauza gutxi dira aberri batek bere aztura hain naro agertzen duena bere herri literaturan bezala).

Gure herri literatura beste edozein herrirena bezin aberatsa ta ugaria dela esan zuen Mitxelena'k bere *Historia de la Literatura Vasca'n* (1960).

Gaurkoz, kulturazko literatura ere ez dugu hain urri (hobeto esan, kultista, landua). Munduko azken bolarak modaz edo bizitzak beharturik sortzen doan era berriko literaturatik emaitza askorik ez bada ere ez uste izan eginezagaitik danik, baizik diranak nun argitaratu biderik ez dutelako, gure argitaldarien zuzendariak lehenera gelago begiratuz bigi direlako edo, zeren batez ere olerkian huraingo erderetakoen zorrak gabeko lanak ezagutzen bat ditugu. Bestalde, argitaratzen neurriak erakusten digu literatura landuaren gradua: ilero bitik hiru liburura argitaratzen dira aspaldiko lau urte honetan. Aldizkariak, berriz, ugariegi ere baditugu, sakabanaturik euskeraren indarrari ta batasunari behar bezala lagundu ahal izateko. Oso tristea da gertaera hau, ta askorentzat mingarri bada ere, hemen, zabalkundez eta kulturaz hoberean direnak bakarrik aipatuko ditugu: Baionako *Herria*, eta ZERUKO ARGIA asterokoak, eta *Egan*, *Jakin* ta *Otoizlari* kultura aldizkari bezala, ta *Olerki* euskal poesi utsezko aldizkari bezala.

(9 garren orrialdean jarraitzen du)

## ZANGOTZA'KO LORE-JOKOAK



Naparroa zaretetik aize onak dotozkigu aspaldian. Zangotza erderaz: *Sanguesa*, Naparroa'ren mugamugan dago, Arago'i'ri begira. Ala ere, ango Lore-Jokotan, (aurten da bigarren aldiz), erderazko ta euskerazko lanentzako sariak jarri dituzte.

Erderazkoak, amaika sari ta gai erabaki dituzte. Geienak, Naparru'ko Kondaira, legedi ta abar, gure jakintza barruko gaita dute. Euskerazkoak iru dira:

Lendabizikoa Euskal-Jakintzako Akademiak jarri du, iru mila pezetakoa. Au irabazteko, euskeraz, era zarreko itz-neurtuetan olerki bat egin bear da.

Bigarren saria, Errokariko Batzarrek eskeintzen du: au ere iru mila pezetakoa. Au eskuratzeko, Errokariko euskeran olerki bat asmatu bear da.

Irugarren saria, mila pezetakoa, Donapaleu'ko erriak eskeintzen du: Base Nabar eskualedeari eskeintzako olerki batentzat. Au, mila pezetako izango dezu. Lanak Abuztuaren azkenegatik bialdu dituzke. Bakoitzak bere lanaren bi kopia edo aldaketa bialdu bita, makiñuz ta alde batetik bakarrik idatzia.

Izenik gabe joango da lana. Izen-abizenak, beste estalki itzi bitan jarri. Izen ontara bialdu zure lanak: Don Miguel Samaniego-Calle Mayor 37-2.º Sanguesa. Navarra.

Sariak Agorrek 15'garrenean adieraziko dira. Orra Naparroa zaarrek onat urrutienak, nolako ikasbidea ematen dituten.

# Valenti

URRE-LANAK

Plaza de Zaragoza, 2 - Urrut. 11825

antziña-gauzak  
erredizak  
bezuza-galak  
erregalauk

ZALDIBAR

EDERKO BE EDERKO

Erri danak eo batez eritxia emon dau, aurtengo Santija jale-tan Gaze'ko suzo-eldatzeak euren jak egitarau barruan Garitogotia'tar Bitor jatorrari eskaini dautzen omena.

Ondo irabazirik omena bene-tan? Iguro diran 47 urte erreka-dakuetan utirik emen barik, Ga-za'ko suzo-eldatzean dagoan "San tjiari" bere egunean erromes lie-rra ederrean txistu ta tambolin iguro ondoren, urrengo urteratez agurtuz Gazatarrak poz-positki irten izan ditu ta.

Iraunkor izatea da gizonari gal-iraunkor izatea da gizonari ga-tzen jatorri! Orretan be bere eua-kaltza etasunon legez, eredu jaku gure "Garita" ospetsua.

Zure bikote garain 80 urte euki arrea, curindik tinto sagos Bitor, beste iru malladi igaro ta urrezko entzeak. Bai orixe!

VEENEZUELA'TIK

Ongi etorri...beroa emon bearren sagos "Azkorgain" euskal idazle ospetsuari ta bere emazte Merze-des' Venezuela'ko Puerto Cabell'on urte batuske egun ondoren Ipara-gire'k ifoan legez erurren erri mal-tera poz-positki etorri diralako.

Ta "Azkorgain" artu idazkoriaz eta salatu, Zeruko Argia'k ba dau lana; ta sarria bateko eun jasoko doguen egunen baten ez dago ea-bairik.

GEXORIK

Adiskide on Gizatzola'tar Kar-mel gexorik dago alditxo batean. Lenbait len sendatu dedilla opa dautzeu.

NOR GEIGO?

Zal'dibar'ko bikote bik, nor gela-goka bat jakatu dabe: zefiek pe-rreritxiko gelgo batu.

Lenengo, bikote bata urten zan uita batsalle, Urkiola gasfean ei ziran goloeko 6'rak baño lenago eguzkiaren sorrerako, Bai perretxi-ko ustaderria ekarri be. Gots da-billenari Jaungoiko lagun!

Beste bikoteak be, gixtiago izan nai ez ta, bardiheko bideak urra-tu ebaren. Zebat perretxitugaz biturto? Bat... Bai ba, eguzkiaren sarrera mendi gainetik ikusi bear da uita ugaria jasoteko, ez gaiko-netako "telaitu" gañetik.

Dala dala, bapez oba pozoidunak baño. Alangoak izan ziran nubait lenengo bikoteak bildu zituztenak. Baintzat ifor urdailleko miñez ibi il danik edo "Bekoetxe"ko jate-xtetik atera danik ez dogu entzun.

ALDAKAITZ

# Euskaldunen alfabetizazioa

## Herri literaturaren emaitza

(V'garren orrialdeki)

Baiba beti izan behar dugu gogoan literatura landua idazle bakoitzaren mende-giroz izan behar duela egiazkoa ta indartsua izango bada. Beti, hauetarik hobereak pasako dira betikotasunerat, batez ere kondairazko baliogaitik. Baiba gaurko irizitz, etorkizunera begira, askozak ere balio andiagoko du herri-literaturak. Zerea herri literatura erresuma bakoitzat bere iturburuetako sustraikakoa du, arbasoak mende-mende agoz-ago da-karrera. Inoiz aldatua ta purtzildua elizen zabaiu ere, maiz obetua, he-rriak bere gogora hezitua, herri beraren spiritua nabari duela. Hor dago herriaren arima billusik. Ta, era honetako literatura aberatsa duenak ez du zertan lotsatu literatura kultista aberatsagoa duten herrien aurrean be-rena gutxi-etsirik. Axular'en Gero, gizon baten lana da, lan jakingarria nos-ki gizon bat eta bere jakintza neurria ta bere mendeko giroa neurtzeko; baiba herri literatura, herri oso baten sustraikakoa da, herriaren muineti-kakoa, bere barne-gogoaren izanetik sortua delako, ta humelako literatura ez du inoiz beharretako gizon baten lanak, batez ere herri horren erriak ezagutu nahi dituanarentzat eta, are geiago, herri horren semea izanik bere jatorrizko izakera xehetasunez ezagutu nahi duenarentzat, zeren le-henago esan genuen bezala: norberaren herria ezagutzeke, nekezagoa baita norpore burua ezagutzea.

Herri literatura baliatzen inglesak ai ziran XVIII-gn. mendearren az-kenetan, ta haien jarraitile alemanak XIX-gn. asieran. Iberiko penintzua honetan, ueste da, katalanak eta portugesak ai zirela lehenengoz, XIX-gn. mende azken alderat, R. Serra i Pagés (1929'an illa) eta J. Fernandes Braga (1843'an jaioa) jaun hoiekin. Baiba, beti gertatzen da ueste erdia uestela. Zeren gure Iztueta (1767-1845), beste agiritik ez dugun artean, izan-nen da lehen folkloristak eta lehen herri-literatura biltzaile.

Euskeran lana egitea beti da illuna. Ez baita euskera portugesa, gaile-go eta katalana bezin mintzaira erreka getalerako edo prantezera itzul-itzeko, bere moideak latinetikakoak ez dituelako haiek dituen bezela. Ta, inoiz zerbait itzultzen bada ere, alkarren artean hain moidekatitz direlarik, itzulpenen gelditzen zaio baliorenen erdia. Beraz, horrela gelditu zen gure Iztueta illunpen, 1824'an Gipuzkoako dantzak argitaratu eman zuena, 1826' an lehenaren jarraitenez, doñu ta kanta zahar. Bere ondorengo izan ziren Borrow (1839) eta Fr. Michel (1857) gure herri literaturarekin arduratu ziren atzerritarrak. Gaiñera, azkena, gure Chaho'k (1811-1858) egin zituen bildumekin baliatu zen. Ta, joan zen monde horretako bildumari hobere-netakoa Mauleko Sallaberry'ri zor diegu, 870'ean argitaratu zuen *Chanis Populaires du Pays Basque*, euskerazkoak beren doñuz eta itzulpenez ema-nak, liburu eder honetan. Ta, holeandik aparte, Jose Mantzolerak (1849-1884) egin zuan lana ez zan txikia izan.

Uste dut gure *Historia de la Literatura Vasca* izeneko liburuetan ez da la behar bezala baliatu gure azko herri literatura hau. Bere toeriazko mamia ongi adierazi zigan Manuel Lekuonak *Literatura oral euskerria* (1935) liburuan. Horain bi urte getua argitaratu zuen «Añamendiak *Literatura oral vasca* izenez.

Hontaz lanik nagusienak eta sakonenak Barandiaran'en *Hojas de Eus-ko-Folklore*'tan arkitu genezazke, geinak «Añamendiak *El mundo en la mente popular vasca* izenezko lau liburutan berriz argitaratua. Eta, Az-ku'e'ren *Cancionero popular vasco* eta *Euskalerriaren Yakinza* liburuetan.

Baita ere apagan berezi bat merezi dute hortan horain lanian ari di-

ran A. Jorge de Riezu'koak eta A. Antonio Zabala'k. Lehenbizikoa Aita Donostiren lanak argitaratzen ari da, *Obras Musicales del Padre Donostia* izenez, ta bertan jasotzen diran gure kanta zaharrik hobereak, Gaiñera, *Flor de canciones populares vasca'sen* (Buenos Aires, 1948) egillea dugu, ta egon seguru herri kanta zahar hauean dugula gure poesiarik jatorrena ez-elik sakonena ta aberatsena, ta bai oraingo ta bai geroko euskal poetak, emaitza onik izango badute, bertatik edan beharra izango dute, gure bar-ne-muimaren gogo bertatikakoa delako. Gure alfabetizazioako zer irakur-gai oherik? «Kullisa Sorta'k 1957'an Irigaray'k autaturik eta ohariturik eman zuen *Euskalerriko Ipuak* bezalako izulzuko liburua behar genituz-ke euskal ikasleetarako, euskaldunak irakurtzen ikasietko ta guziok gure erria erroz ezagutzeo.

A. Zabala egiten ari dan lana ere benetan txalogarria da, bertolaritza dugularik gure herria literaturaren bereizitasunetik nagusienetako bat pena zan kondaira zear bertsio hoiek galduaz joan beharra. Noizbait agertu zan gure Zabala ta asi zan bilduaz, rgitaratuz, ezautartzuz, indartuaz, galzorian zirenak betiko orhoiztara eramanez. Bertolaritzaaren kondaira ta erregelak A. Onaindiaren *Gure bertolaritza* (1964) liburuan biltzeko di-tugu.

Alpatutako bilduma hoieri begiratu'txo bat aski da gure herri-literatu-ra oso aberatsa dala jakiteko. Lastima gure istudianterri beren asignaturata ez erakusteak. Ezagutu gabe, zelan maaitatu? Ikasi gabe, zelan maaitatu? Ikasi gabe, zelan jakin? Euskera pobrea dalakotzat gutxi-etsirik uzten du-tenetatik zenbatak urtziko luke gure kultura ta gure literaturatuz zerbait balekit? Campión'ek aspaldi esan zuen, herri atzeratuak pitxirik hobere-nak ere bota egiten zituztela, beren balioa zer zaanik ere eztekie-lako. Hori ez ote da guri gertatzen zaiguna?

Aozko literatura dugu lekuko herri kulturaren iturburuena. zenbat eta hizkuntza zaharragoa hainbat iturburu jatorragoa ta hainbat errotuagoko li-teraturaren izakera. Adibidez, kiltzua eta tupi-guarani hizkuntzen aozko li-teraturetan oinarrituak dituzte beren poemak Cesar Vallejo, Neruda, Ata-hualpa Yupanqui... Behe-Ameriketako olerkariak beren izaketatikako zati handi bat haieri zor die-lako. Horregaitik, euskal olerkariak ere, funtsezko lanik egin nahi badute, euskal kanta zaharretako bideak urratu beharko dituzte, bertan erroturik gaurkoan arituzko. Gaiñera, kanta zaharrak era-ukituko digute beste euskalkien eta euskera zahharren milla guzta berezi jolaski ari-tuz.

Artikulu hau irakurtzen duten askori kostako zaie euskerak aozko li-teratura hain aberatsa duela sinestea. Baiba, hoieri, konparazioak geenetan desegokiak izaten badira ere, hau esango nizkiok: euskera naiko ondo menderatzen badute, paragarateko erderaz J. Bergua'k eraturako *Las mil mejores poesias de la lengua castellana* (Ediciones Ibericas, Madrid), ta de Riezu'k eraturako *Flor de canciones populares vasca'sekin* (Editorial Vas-ca «Ekin», Buenos Aires), hontan euskerazko testua oifarr) harturik, argi ikusiko du euskal kanten poemak badirela erderazkoak haña, oheak ez ba-dira. Jakiña, ez da berdin izango euskera teorian eta erdera praktikan eta-biltzen duten euskotarrentzat.

Bukatzeo, gauzato bat gogoratu nahi dioter irakurle euskalduneri, aurten betetzen dirala berreun urte Iztueta zaldibiarra mundura etorri zela eta berarekin zor haundian gaudela.

JUAN SAN MARTIN

# LIBURU BERRIAK



BIZKAI'KO AURREZKI KUTXA'K, bai Bilbo'n eta bai Bizkai guzian egundoko lana darabil mesedeo, gizaritako ta jakintzako sarrietan eta osasun bidetan ere aleginik sundenak burutu ditu.

Zure diru arruareturentzat  
CAJA DE AHORROS VIZCAINA etxea dezu onena.  
Etxe Nagusia: Pl. España, Bilbao.—Urrut. 24.36.00

Amar Etxe morrol Bilbo'n  
60 Etxe morrol Bizkai'ko erririk Nagusienetan.  
Madriliko Etxea: I.C.C.A., Alcalá, 27.—Urrutizkiña 2.21.49.95.

La CAJA DE AHORROS VIZCAINA realiza en Bilbao y la Provincia la más extensa obra benéfico-social y cultural y la más eficaz entre las sanitarias.

Para sus ahorros, la

CAJA DE AHORROS VIZCAINA

Oficinas Centrales: Plaza de España, Bilbao  
Teléfono 24.36.00 (varias líneas)

10 Agencias urbanas. — 60 Agencias y Sucursales en los pueblos más importantes de la Provincia.  
Agencia en Madrid: I.C.C.A., Alcalá, 27. — Teléfono 2.21.49.95

## Ez Merkenak

### Bai Onenak!

Iamari bidez izaten diru ganadu on, indartsuak, Eta nora po jakin bear du baserri-rat burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gadera esne putzuak, Oik guziak berekin ditu Fanderia'ko perusuak.

# FANDERIA

ERRENTERI

LUZAIDE'KO KANTIAK-J. M. Satrustegi. AUSPOA saillean 05'gu-rren zenbakiz joa dator liburua berri-ari. Luzaide, erderaz Valcarlos die-tena, an duzu zulo-kote zorangarrian, Orreaga'atik bera muga aldera egi-nez.

Ibañeta gainetik bera begiratu ta an ezer jakingarrik arkitu diteke-nik ezingo dezu sinistu. Ta ala ere, zenbat kontu polit eta zarren ipui dituzun antxe.

Luzaide'k beste zorian bat izan du: an urtetan bizi izan zala J. M. Satrustegi, apaiz argi ta langillea. Oñek errixa artan egin zuan lana, aipatzeo-ka da. Ba-zuan troko are-tan alako aldizkari xulo bat, luzaide-tar guzie banatzen zitzaiena.

Ameriketa aldean diran artzai euskalduneri ere bialtzen zitzaien al-kizkari ura; ta nolako bizi ta iru-kurgari zan erriko seme-alaba gu-zientzat.

Urte aieran milla kontu zar bil-du zigan Satrustegi opexak eta orain liburu-ska onetan ematen dizkigu zenbait kontu jakingarri, luzaide-rreren aoz jasok. Alderdi artako eus-keraz zerbait ikasteko ere etzazu oker etortriko. Ar zazu eskuetan eta irakur gozo.

IRU BERTSOLARI

AUSPOA argi dator beste ala ba-tek. Oraingo liburu-karen izena: IRU BERTSOLARI da. Bertsolari au-ek: Agustín Zakarra (1816-1886), Patxi Bakallo (1832-1893) ta Pedro Santa Cruz (1839-1905) dira.

Bere itzaurretan, zeatz-meatz ematen dizkigu Aita maual'ak bert-solarion goraberak. Irurak aurreko gizaldikoak ditugu. Azkenak, ala ere, gure gizaldi oni bere lenengo bost urteak artu zizkion.

Agustin Zakarra, Asteasu'n jaioa dezu. Esmarritzaga basarrian bizi ta pipa-artzaillea bera. Ispilluari bein bakarrik begratu omen-zion. Gure egunotako emakumeen antzik etzuan omtan, beraz.

Patxi Bakallo, Errederi'ko semea zan. Aren izena: Juan Fro-n-tizko Belauzanaren eta Zabala. Bai Agustín eta bai Patxi, ezkonduak izan ziran. Bigarren au, Ameriketa-rra joan zan eta an il ere.

Pedro Santa Cruz eta Etxebeste, Andoainen jaioa izan zan, Antzizu basarrian. Oni bere lenengo emaza-tea gazerik il zitzaion eta bigarren aldiz ezkondu zan.

Orra mitzizatzeko berri-punta ba-tzuek. Beste guzia jakin nai duanak, eros beza liburua ta an arkituko di-tu beste koxka guziak. Liburuak 00' garren zenbakia du ta oi bezela, gu-re orriarentzat ba-du bere gazi-ga-za goxoa.

GARIBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA



# Zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 4 PEZETA



Une zoragarria San Inazio egunkos Lazkao'ko beneditarrantzat ta Euskalerrri osarentzat. Landik ezagutzen dugu monasterio au, baiña orain agertzen zaigu ondo ta sekon zimendu-ta. Abata berriaren sagaritzeak ori asan nai digu. Pake ta egi billa ortarño lristen diran guztief, Jainko bizitzaz suspertzen lagunduko diezutela uste dugu.

## COLON EUSKALDUNA Paco Vargas'en irizpideak

Esan izan degunean Colón plazentziarra zala, txaintsetan artu izan da, baiña ezta orren txaintsetako gauza. Larramendik eta Astarloak ongi sustraituak utzi zituzten zelalako etimolojiak eta istorioak egiteko era. Larramendik naioka umorekin adierazten zituaren bere etimoloji atarketak eta ezta erroza igaritea noiz ori zan serio eta noiz bromo-pasa. Astarloa berriz beti seriotasunez ta sutsu. Bigarrenak, gaur, porraitzaille geiago duala esango nuke, gure euskal giroaren kulturako noski; bear bada leengoa-ren umorezko jarduntza ez ezagutzearren. Dana dala, emen gaude aingandiko karga astun batekin.

Paco Vargas, "El Hidalgo de Soraluze", Larramendi'ren espaleitakoa genduan. Baiña Plazentziako urak kutsatuagoa noski. Larramendik berak ere ez ote zuen plazentziarren baten ikutua? Ez nuke ezetzik esango. Paco Vargas'ek bai.

Asteko, esan deigun ez zala "El Hidalgo de Soraluze", ez Paco Vargas eta ez plazentziarra: Francisco Meléndez omen zuan butaio izena. Alajaina! Gure gizon au salaman-carra zan, nai Plazentziako izaserez ondo errotua. Bere aita Plazentzia-

## Euskal Pastoralak Maule'n

Ona emen guziak alaituko dituan berri on bat: lil onen 20 eta 27'an Euskal Pastoral eder bat agertuko digute Xiberotarrak, Mauleko Urñan.

Azkenaldi onetan, begiak pixka bat idekitzen asi geran garai onetan, Pastoralaren berezitasunaz asko mintzatzen ari gera; gutxi ikusi al izan dute ordea, ez bai da egunero ikusi al ditekera gauz bat, ezta askotaz gutxiago ere. Lan aundia artu bear izaten dute muntatu al izateko, beste alde jende asko bear da, ta gauz denetako ostopoa, diru asko bear baita.

Aurten «Chiquito de Cambo» prestatzekotan zirala jakin genduanean, gogotik poztu giñan, baiñan gure pozak ez zuan asko iraun, denpora gutxi barru ez zutela egiterik adierazi bal ziguten. Or artu dira burruka bizian, batzuek bear zala egin, Pastoralak ezin il zitekeala, euskal aberastasun au ezin zela galdtu, ta beste aldetik eragozpen guziak; azken ondorena ezin obaogoa izan da ordea ta or ditugu begi belarri Etchahun'ek idatzitako per-tsuari beren buruak lotuta.

Etchahun idazlea, bere semearekin izango da gidari ta «metteurs en scene» Uruty ta Laferrine, Gareindeli'go jaunak. Egin edo ez egin zalen-tzan ibildu ba dira ere, orain egitea erabaki duten garaiñan gauz nagusi bat egin nai dute, azken urte guzietan izan dan Pastoral'rik aundiena. «Mustra» edor batekin ekin nai diote, oitura zaarreneko aberastasun guziarekin, ta Pastoralak bitartean Satanak mintzatuko dira, dantzatuz, 18'gn. mendeen bezela.

Iruri'ko Pierre Bordacare'k idatzi duen seiagarren Pastoral unek (leen: Etchahun, Matalas, Berterretche, Sancho Azkarra ta Iruri'ko kudea) inoiz ez bezelako arrakasta izango duen ziurtasun osoan gire, gure antzertieren onarriak or bai ditugu, ta gaur egun gure izakeraren aztarketa bizian gorenz ta kanpotarrak berak elnestu ezinazko parogabetasunak arkitzen dizkionenez, lo zorroan ez dugu jarraitu naiko.

Kontuan artu, Pastoralak luzeak izaten dirala. Aurtengo unek 4 bat ordu iraungo ditu ta gurrez «muestra» izango danez, gure oiturrarako goiz asiko dala, eguardiko ordubatean, alegia. Ez dakitena da bi igandetan «mustra» egin al izango duten, 20'an egingo dala, ori da oraingoz erabakia.

Berri au jakin bezin azkar eta emen, alderdi onetan, ikusi nai luken jende asko eta asko izango danez, ba dakigu artu emanetan dirala datorren illaren 3'an gauz bera Donostian egin al izateko; lerro auk idaxten ari naizan unean ordea ez da ezer erabakirik; amets utsean ez al da geldituko beintzat.

## Zeruko Argia'ren jaiak

Len esan genduan bezela, ZERUKO ARGIA ez da azalduko il onen 27'garrenean. Orrela bateko ditu bere opor edo jaiak.

## KONTUZ!

ZERUKO ARGIA'ak bere lanetarako zuan beribilla norbaitek ostu digu. Aren matrikula au zan:

**SS 62.125**

Norbaitek beribil ori nunbaiten begitatzten ba-du, abisatu lenbailen guri, zuzenbide ontara:

Donostia, Okendo, 22. — Tel. 26666

Milla esker.

netik aparte liburu bat eskeindu zigun: Colón vizecaino Imprenta Commercial Salmantina. Salamanca, 1936), Colón Plazentzian sortua zola agiriak emanaz.

Au irakurtzean, norbaitzuk, parre egingo dute, baiña aintziñatik dira Italia, Portugal, Galizia ta Katalunia bakoitzak berretzat artu naiarik, ta oruindik inork agiri zeatetik eman gabe. Beraz, geuk ere zergaitik ez aiek aindat eskubide? Amerikak, edo orduango Indiak, arkitze aretan Gaztelaniak du, erri bezala, egiazko meritu nagusia. Bakoitzari berea. Baiña, ala ere, inork ez du defenditu gaztelarra izan zitekeala asanaz, ta gutxiago agiriak emanaz, gaiterako erriak egin izan duten bezala. Mende onen aurren parteko urte batean alperrik egin zuan Madrid "ABC"ek deia, bost mila pestako saria esketituz Colón gaztelarra zala demostratu zuanari. Lastima, oruindik inork ezin izandu eraman "ABC"ek antolatutako "kultura" sariketa orren dirarik. Ta, sariketa iriki ta laisierren, Salamanca-ko au etorren Euskalerrikoa zalaren agiriakin. Euskalerrian











